EGUNA
JEL

Ama ilgo zara motzen azpian, ilgo zara zeu betiko? ¡Itxaron Ama jarion biot, neure odola lenago!
ARANA-GOIRI

Lgo. urtia | 68'gn. zenbakija | Idazkolea ta banakolea: Correo, 17'gn. | Bilbao'n 1937'gn. epaila 20'gna. larunbata | 15 euneu

AU, ORI TA BESTE

Erbestera begira gaurdaño izan dun jokabidea aldatu beaŕa izango du Austria'k

Naste gogoŕa dago Austria, Berlin, Roma, Praga eta sartaldeko eŕien artean. - Langilliekin asaŕe da Hitler. - Holanda'ren jokaera egokia. - Ez sartzeko komiteari buruz.

ABERTZALE EREDUA

Gogoŕ eta gogoŕ. Abeŕiari begira beti tinko (irmo).

Abeŕtzaletasun gaŕez irakiten, azkatasun maitasunez kesketan.

Irlanda'ren miñetan eta negaŕetan De Valera zindo, zintzo eta osakaŕi agertzen da.

Abeŕia estututen eben katiak apurtu dituzan; geroago abeŕiaren malko ugari legoŕtu ditu. Abeŕiaren zoriona eskuetan daroa.

Inglateŕa aŕo eta andi zalearen auŕean arpegi emon dau. Eskubidien indaŕa auŕez auŕe agertu dautso.

Inglateŕa'k eztau bururik makurtu; Irlanda'k nekezago makurtuko dau De Valera lendakari dan bitaŕtez.

Irlanda azke izango da.

Patirki deunaren egunez, azkatasunaren alde odola emon eben abeŕtzale zintzo eta eredubeen oroiz, andikiro agertu dau:

Irlanda gertu dago Inglateŕa'ri eskua luzatu eta beragaz aŕtu-emonetan asteko. Baña Irlanda'ren azkatasuna ezagutu ondoren. Irlanda'ren azkatasuna oñaŕi dala. Argiro itz egin dau. Esana beteko dau. Inglateŕa'k ondo daki De Valera'k eztau azkatasunik galduko.

DE VALERA

Viena. — Ondo dakiten batzaŕetan diotenez, Austria'k, gaurdaiñokoan atzeŕira begira jaŕaitu izan oi duan jokabidea, zearo aldatu beaŕa izango du laster. Berlin eta Roma'kin duan batasuna ausi ta Hungria ta Checoeslovaquia'ri lotzea izango da jokabide oŕen aldatzearen ondorena. Kurt Schuchsning austriaŕ kanzileŕa Budapest'era etoŕi egun-auŕetan diote origurt Schuchsning Roma'ra joango dala gero.

Oraintsu ilabete, Virginio Gayda bide, "Giornale d'Italia" izpaŕingian, auxe esan zuan Mussolini'k: "Austria'n Habsburgotaŕak aginterik, ez det nai iñondik iñora ere. Italia'k munduko basteŕetan zenbat arduratzeko duan gogoan euki beaŕ du Austria'k eta Italia Austriari lotuta bizi beaŕ ez dana ere, gogoan euki beaŕ du".

Askok eta askok uste dutenez, Mussolini'k eskutik beera utzi dio Kurt Schuchsning'i. Beste eskutuko sozialistaŕen izpaŕingi batek auxe agertu zuan, izki aundiz agertu ere: "Mussolini'k Hitler'en aldez zamatu du Austria".

Itxuraz, Austria'k, atzeŕian duan gizonik aundienak, Mussolini'k, iruzuŕ egin dionean, Praga ta Budapest'era begira lotu da, laguntza-eske begira.

"Weltblatt" eguneroko izpaŕingiak argitaratu duan "Europa'rena da oraingoan aldi" izenpurudun idazlanak, gaŕantzi aundia du, gauŕ - egunekoa gogoan izan ezkero.

"Welblatt" egunerokoaren asmoak Schuchsning'en asmoak dira. Alemania geroago ta altsuago egiteak eta mundua zeaŕ Italia'ren ardurak zabaltzeak, estu ta laŕi utzi dute Europa. Europe'ko Lateŕi txikiak laŕi-laŕi.

Idazlan oŕek dionez, gaiñera, Europa'ren onerako ta-batasunerako, nai ta naiezko da, Austria, Hungria ta Checoeslovaquia bata besteagandik azke bizitzea eta, guztiai kalterik letorkienean, danak batera jokatzea.

Idazlanaren egileak aŕetaz jakin erazo du Schuchsning'ek Budapest'era etortzen danean, Atzeŕi - Arazoetako ministru dan Guido Schmidt'i lagunduko ez diona.

Argi ta garbi azaldu du "Welblatt" izpaŕingiko idazlan oŕek, Austria, Berlin, Roma, Praga ta sartaldekoen aŕtean bizi-bizirik eta irakiñez dagon nastea

LANGILEEKIN ASAŔE DA HITLER

Berlin.—España'ko Erkaldaŕen alde euren buruak ezaldu dabezalako beste langile batzuk, be, espetxeratu dabez Alemania'n.

Krupp-olaetako 58 langile moŕoilo-peratu dabez azkenengo egunotan.

Alemania'ko izkilu-ola nagusieneko langileak beretaŕ ebazala uste eban Hitler'ek eta ez dirana jakiteak min emon dautso.

HOLANDA'REN JOKERA EGOKIA

Amsterdam.—Españaŕ paxista itxasontzien laŕegikeriak, lapuŕeta etsi dauz Holanda'ko Erbeste-arazo Arduradunak.

Laŕegikeri oŕeik dirala-ta holandaŕ itxasontziak ezer galdu beaŕik ez dabela ta laŕegikeriei era berean erantzungo dautsela eurak be, adierazo dau.

ALEMANIA TA AUSTRIA ASAŔE

Berlin.—Berlin eta Munich'en Lateŕi otsein batzuk otseintzatik kendu egin dabez. Otsein oŕek kentzea Viena'ko israelitaŕen azpikeriakaŕen izan ei-da.

EZ SARTZEKO BATZORDEARI BURUZ

Paris.—Gudearen eta paxistakeriaren auŕkako Batzoŕde Nagusiak España'ko une laŕia dala-ta dei bat egin dau.

Erkaldaŕ Gobernua'ri egin dautsezan irain biak astertzen dauz dei oŕetan. Ez sartzeko Batzordea'ren lenengo batzaŕak doguz lenengo irain. Alemania'k, Italia'k eta Portugal'ek Franco'ri gura ebana emoten eutsan aŕtean, Frantzia'k eta Inglateŕa'k Erkaldaŕei, ez eutsen lagundu.

Bigaŕen irain Alemania'k eta Italia'k bialdu dabezan gudari-taldeak dira. Gudari-talde oŕeik guztia agirian egon dira Malaga'ko ta Madrid'go erasoetan.

RUSIA'KO JAKITUNEN DEIA

Moscu.—"Izvestia" izpaŕingiak rusiaŕ jakitunak erbesteko jakitun guztiei dagitsoen deia argitaldu dau.

Dei onetan ertilanentzat ez ikastokientzat begiramenik ez daben paxisten nabarmenkeria azaltzen da. Edozein erti lau nai ikastoki suagatzen dabe-ta, baita zauri etxeak, be.

SASI EUZKOTARRA

Aŕo, zital, ankeŕ...

Euzko-muñetan saŕtzen daki, muin oŕein aberastasunak legunki iruntsi eta frantzetaŕei zidaŕezko ontzian aurkestu eta eskintzeko.

Baseŕi-zale da baseŕietan, andiki aŕo jauregietan.

Leun, gozo, koipetsu euzko-izatea goratzean euzko-eŕitxuetan.

Gaŕatz, erkin, miŕin Paris lizunean.

Ibarnegarai'ren izena itzalez, ilunez eta laidoz beterik darogu euzko-biotzetan.

IBARNEGARAI

Origaitik Frantze'n bizi da, Paris aŕoan, auteskunde egunetan izan ezik, abeŕia salduta.

Erbestean zaratarik ataraten ba'daki.

Atzo bertan, Paris'ko lege-etxean bere abots leuna demokraziaren auŕka jagi eban, Clichy'ko jazokun negaŕgaŕiak dirala-ta.

Gudea asi zanetik kalterik egin dausku, paxista amoŕatu lez jokatuaz.

Oŕ dabil "Eskualduna" bere asterokoa su ta gaŕ gure auŕka, euzkeldun fededunen aŕtean goŕotoa eta ikusi eziña sortzen.

Euzkera paŕa-paŕa ta eztitsu erabilten daki. Erabiliko ezpaleu obe, abeŕiaren izkuntza zoragaŕi au azkatasunaren kaltez itz eta lan egiteko dau-ta Abeŕia estu eta katez beterik ikustean atsegin dau.

Ibarnegarai!

Euzko-izatea edenez inguratu eta usteltzen dabilan aŕa.

Destañez gogoratu irakuŕle!

Uskuŕtza-gayak

KISTAŔ-IKURA

Ludi'ko Lateŕi, Abeŕi ta Batza'k euren ikuŕiñak dabezan lez, kistaŕok be, bere kerizpean batzen gauzan ikuŕa dogu: Gurutz Deuna. Berau da Kisto'ren jaŕatzalien ikuŕiña. Iñora juan, ba, ene euzko-irakuŕlia, ta gurutza dakuzunian, Kisto'ren jaŕatzale-abija dala egixu.

ZER DA GURUTZA?

I

Gurutza, Kisto'k bere erijotzaz detundu, goraldu, aintzaldu ta jaunkotu artian, gixon gaizkale ta deungien zigoŕa zan; gurutza, urka-mendirik lotsagaŕijena zan. Eta zigoŕ-ikuŕa zan gurutz legoŕa, Kisto'k bere erijotzaz zugatz ugaŕi-igalitsuz biurtu eban. Zugatz igalitsuba da, ba, gurutza.

II

Gurutza atsekabia, naigabia, oñazia ta miña da. Jaso egixuz, ene irakuŕle, zeure begijok Golgota-mendiko gurutzara. Maitasun eri dan bijotz jaunkotija ezezpen-atsekabez iltzeŕ dakuzu. Bere aurpegi margul, begi undatu-laidotsubak naigabe - oñaziak dagertzuz. Bere zauri odoltsu ta ar nasa estubak erijotzaren min neketsubak. Orixe da gurutza: atsekabia, naigabia, oñazia ta miña.

III

Donokiratu gura daben gixonaren bidia da gurutza. Atsekabia, oñazia naigabia ta miña da ixan be bixi au: lorijontasun-bila ludijon astija emotia, zorakerija da, amesa da. Donokitzeko, Kisto'k bere oñez ibili eban bidia jaŕatu biaŕ dogu. Jasatia (sufrietia) nai ta nayezkua dan ezkero, Kisto gurutzan antzeztubaz, atsekabiak geure baŕuban dei dagijanian, Getseman'ko baratzean Nekaldi aurtxuban egin eban otoya egin biaŕ dautsagu Goiko-Atea'ri: baña, zeure gurarija ba-da... egin bedi zeure nai mena.

GURUTZ-ZUGATZAREN IGALIJAK

Igalijok atatu baño eztoguz eginga. Gixonok, oben egin baño len gengozan tokira jaso ta goŕotuak aldendu ginduzan Goiko Atea'gin maitasunkatez lotu. Goiko-Jauna'ren ondasun, goi-maitasun, eŕukitasun ta zuzentasun ezaubidez aberastu. Onimenaren anditasuna ta obenaren itsusikerija ezagutu-azo. Donokijan sartzeko biaŕ genduban lenengo goi-eskaŕa emon. Geure gaxo ta gogomiñak osatzeko zazpi - ikuŕton (sakramentu) iturijak idegi. Jaungoikua maitatu; bere eŕukitasunean itxadon, bere zuzentasuna itzaldu ta obena goŕotsututeko adoretsu. Apaltasuna, eruapena, bixi latsa, txirotasuna ta ludi-ezezpena maitatu ta gorputz-zalekerija ezezpatuteko kemendu. Atsekabe gustijetarako soroski atsedentsuba; zirikaldijetan, bariz, baru indaŕa. Geure bijotza Jaun-maitasunez sutan imiteko laba gorija. Erijotz-orduban, eskutzean barik, goi-aberastasunez aberastuta egoteko bide bakaŕa.

GURUTZA GUSTIJA DA

Neri'taŕ Pilipa Deuna, zan idaztizalia ixan da be, txiruak sorosteko besterik ezki ezean, idaztitegija (bibliotecа) saldu eban, bere ordañez biaŕtsubai laguntzeko.

—Edeŕa egin dok, iñutsen bere adizkidiak. Orain nun asetuko dozak eure jakin-zaletasun ta gurarijak?

Eta Pilipa'k, bulaŕean eroyan gurutza atareaz,

—Nun?—erantzuten eutsen.

—Ementxe; ona emen neure jakin-gura gustijak aseko dabezan idaztija.

Gaxorik osatu biaŕ ebanian, gurutzara joten eban. Bide onera obendirik ekaŕi biaŕian auŕkitzen zanian, gurutzara joten eban. Txeŕenak eritan eutsazan zirikaldijak goituteko, gurutzan edaten eban adorija. Gurutzaren bidez bete ebazan bere biaŕixan gustijak.

Bedonek ixan biaŕ dau, ba, ene euzko irakuŕlia geure adizkiderik kutunenak. Bedonen adizkidetasunez apalak, eruapentsubak, onoimentsubak eta deunak ixango gara. Gurutzaren ikuŕaz geuria da azken-garaipena.

ASTITXE.

ERITXI ZUZENA

Ez sartzeko komiteko eztabaidak. Bigunkeri ugari zer ikusirik ezeben gayetan. - Beste izpaŕak.

Londres.—Ona emen "Manchester Guardian" izpaŕingiak argitaratu dituanetako idazlan bat:

"Beste eragozpenik sortzen ez bada beintzat datoŕen larunbatez, lateŕietako gudontziak España'ko itxas-basteŕetan zabaldu ta egongo dirana jakitzea pozgaŕia da.

Naiz ta paxistaŕak egazko kontrola jartzeari eragozpenak bideratu, auŕerantzean, emandako itza ausiaz, gudari ta gud - kiluak saŕtzea gaitza ere gaitza izango da.

Mussolini'k baiña lortu du berea. Kontrola beaŕ dan arauz ezaŕi baiño lenago irurogeitamaŕ eun mila arteko gudari taldea españaŕ paxistaŕen taldetara bialtzea, lortu du Mussolini'k. Italiaŕ gobernuak geiago "boroncatezkorik bialtzea" aginduz debekatu ta zortzi egun geroago, beste amaŕ mila gudari bialdu zituan Mussolini'k. Eta erkal-gudariak, eŕiko gudari jatoŕak, atzeŕiko asaldari oien auŕez auŕe gudukatu beaŕa izango dute.

Gerokoari begira diardu Mussolini'k. Franco'k (Franco bai esku-zabal!) eskeiñi edeŕa egin dio: une laŕiotan Italia'k luzatu digun laguntzeskua eta gudateko egun samiñetan geurearekin bat egin dan biotz aundia, ez degu beingoan aztuko.

Ez-saŕtzeko Batzordeak, baiña, gudatean nastatu diran atzeŕitaŕ guztiak españaŕ lateŕitik "al danik laisteŕen" ateratzeko alegiñak alegin eta azterpenak-azterpen egingo dituala agindu du Italia ta Alemania eurak eskatu zuten ori lenen lenengo. Oraintsu astebete baiña, Batzordea auzi ori aztertzen asi zanean, Italia ta Alemania ziran ostopo bideratzaile. Auzia aztertzeko, España'ko Gobernuak atzeŕira bialdu duan uŕea ere, gogoan euki bear dala, alegia.

Uŕearen arazoa ta "ez sartzekoa", besterik dira. Ez dute alkaŕekin zer ikusirik. Aitzeki bat baiño ez da. Españaŕ lateŕitik españaŕ ez ziran guztiak ateratzea Italia ta Alemania'k, eurok-eurok, eskatu zutenean, ondo oaŕtu ez zuten uŕearekiko itzik egin ere egin. Italia'k eta Alemania'k, urtarilako 25'gnez. eban zuten idazki-agirian, ez zuten uŕearekikorik aitatu ere egin. Españariak ez ziranak, España'tik ateratzea eskatzen zuten.

"Uŕeak" eta "ateratzeak" ez zuten eta ez dute alkaŕekin zer ikusirik. Alemaniaŕ gobernuak, bestalde, "ateratzea"-ri iritzi zion biderik egokien. Italiaŕ gobernuak ere, garilako lenengo egunetara jo bear zala azaldu zuan, España'n italiaŕik ez zan garilako lenengo egunetara. Inglateŕa'ko gobernuak, Alemania ta Italia'ri, euren asmoak gogoratu bear dizkie, "ateratzeko" asmoak. Valencia'ko gobernuak auzi ori ontzat eman zuana ere bai gogoratu. España'ko gudu-oiñetan 100.000 italiaŕ uzten dituan "ez sartzeko" kontrola, gaurdaiñokoan, "kontrol gabe", "ez sartzeko" asmoa izan dan begin nardagaŕia litzake. Kontrol ori ba auntzaren gaberdiko estula berdin-berdin".

BATI OSTU TA BESTEARI EMAN

Ceuta.—Itxasoak zeaŕ, dakusten guztia lapuŕtzeari lotu diran Franco'ren moŕoiak, itxas-lapuŕak, aŕapatzen duten guztia, Alemania'ra bialtzen dute, igali edo frutak batez ere.

Lapuŕtu duten igali geiena Alemania'ra bialdu dute.

IÑOREN OTSEIN ETA MOŔOI IZATERIK EZ EI YAKOE ATSEGIN

Paris.—Mussolini'k bere entzutea ta aginpide-indaŕa oraintxe galduko dabezala diño "Republic" izpaŕingiak. España'n aŕtu daben ipurdikoak galduko ei dautso bere ospeoi. Oraiñaŕte Portugal'ek, be, Mussolini'ren asmoei jaramon egiten eutsen, Inglateŕa'ren jaŕaitzaile zanaŕen; emetik auŕera baiña Italia'ri jaramonik egiteko, Inglateŕa'ren andirik joko dau.

Mussolini'k españaŕen gogoaren izatearen baŕirik ez dakiala diño izpaŕingi oŕek. Españaŕak odolez ei dira ezikaitz ta moŕoitza-arerio.

Kontrol asmoak

KONTROL ASMOAK ETA INGLATEŔA'KO ALDUNDIA

Londres.— España'ko portuak zaintzea dala-ta salerosketa-ontzi ei buruz lege asmo bat irakuŕi eben Aldundi oŕetan.

Laboristen izenez Waker jaunak itz egin eban eta laboristak lege asmuoi ezin onaŕtu eikela aitzen emon eban. Jaun oŕen aburuz lege-asmo ori españaŕ erkaldaŕentzat kaltegaŕia da.

Italiaŕ eta alemandaŕ asko ebezala euren aŕtean paxistak esan eban.

Liberal-alderdiaren izenez Mr. Roberts'ek itz egin eban. Lege-asmo ori onartzea zeaŕka Franco'rentzat baiño kaltegaŕiago zala-ta. Liberal-alderdiak ezin onaŕtu eikela adierazo eban.

Beste aldun batek, be, berak ezin onaŕtu eikela, España'ko Erkaldaŕ egizko Gobernua'ri yagokozan eskubideak, lege oŕek ukatu egiten eutsozala-ta, azaldu eban.

Gobernua'ren izenez Mr. Rusdman'ek azaldu eban lege-asmua. Oraingo une laŕi onetan "ez sartzea" aukera daiken jokerarik egokiena ta bidezkuena agertu eban.

Autaŕki edo botuetora jo eben eta lege-asmo oŕen alde 192 autaŕki izan ziran eta 92 auŕka.



Bibar aldian. Kalamua mendiko aterpe ospetsua.

Atzoko, eguna euzko zaingoetan

Datoŕen astean garbantzuak, ikatza, ardaua, jaboya, aŕoza eta patatak emongo dira

Jaboya asteartean emongo da, ikatza eŕiei emon ondoren eta beste gayak eguenian.-Gaizotegietarako emokunak.-Baseŕitaŕen alde.-Pentsuak eskatu ebezanak laster jasoko ditue.

Lendakaritza

Izketaldiak

Euzko-Gobernu'ko lendakari jaun agurgaŕiak, berakin izketan jarduteko, onexei eman zien atzo baimena:

Oleron ugartera dijoazen umeai lagundu beaŕ dioten buruen Batzorde bati.

Gracia'taŕ Jon, Gizarte-Laguntza Zaingo'ko arduradun jaunari.

Piñerua'taŕ Ander koronel jaunari.

Agulo'taŕ Bingen Kantabriko'ko Itxas-gudarien buruari.

Azkue'taŕ Terese, Emakume Abeŕtzale-Batza'ko lendakari andereari, ta Rousse'taŕ Lole andereñoari.

Aŕatsaldez, Algorta'ra joan zan lendakari jauna, bere sendikoen artera.

Osasun-zaingoa

Osakaiak

Osakaiak, aztertu ta saltzeko baimena emateko, egunero jasotzen ditu Osasun-Zaingoak.

Arlo oni buruz, auxe jakin-erazo nai degu: Osakaiak Zaingo ontara bialtzeko azkenengo eguna, osakai berezientzat, iña ontako 26'gna. dala ta, elikatura-osakaientzat, 31'gna.

Nekazaritza

Luŕ-lanak egiteko langileak

Joan dan egun batez alputu gendiuan, baseŕitaŕ gaste asko gudari joan dirala-ta, basetxietan, askotan beintzat, baztaŕak landuteko gizonezko gabe geldi, dirala.

Utsune au atonduteko, erabagi bat emongo ebala Zaingo onek esan euskuen, eta agindu ori gaurko eguneko dogu. Ona emen agindu ori.

Lugiñen alde

Agindua

Paxismuak sortu dauskun guda au amaitutea oraingoz, lenen eta beñeko arazu dogularik, ola, lantegi eta ur-lanetatik askok eta askok aldegin beaŕa izan dabe. Utsune ofek betetea, ordea, nai ta ezko lana dogu, gudeari berari dagokionez be, arlo ofeik iñor ezta, bertan bera uztea, kaltegaŕi izango litzakigulako.

Luŕ-arazoak, nekazaritza-arlora beŕena dogu gaurkoan, gauza eta janariak ekarteko eragozpen eta oztapo ugari dogulako.

Luŕ-lanetarako gizon gitxi gelditu bai-dira gure baseŕtxietan, eta beaŕeko oso izanik langile-ok, gaj oin dagokion gaŕantziz eta arduŕa andienaz, erabagia aurkitu nai dautso Zaingo onek auzi aŕi.

Bata-bestearen asaŕebide izan ez dedin, erabagia, zindo ta zeatzaz, zur eta argia bearko da izan, iñortxok be esames biderik izan ez dagian.

Ofezkero, agindu auxe biribildu beaŕ.

Lenengo atala. Nekezaritzan betiko ari zan dana, eta guda-lagiz deitua eta gudarostean dagona orain, Nekazaritza eta Aberetza Zuzendaritza nagusira joteko eskubidedin da. Oraitiño ori egiteko, nekazaritza arlo ortan bere ordezkarik iñor ez dauana bearko, eta laguntzalea eben guraso eta edonontzako be, kaltegaŕi izatea lan-uzte ori. Baldintza ortaz, gudaltsaletatik aldendu dagiela eskatu leike.

2'gn. Zuzendaritza ofek, eskari -agiria aztertu eta zio ta zegaitiak arakatu eta adiraldu ditu. Beaŕ dituan argibideak bilduki, egokien dana erebagiko dau. Ondoren, Zaingo burukideak onartuki, Guda-Zaingo'ra igoŕiko da erabagia. Zaingo onek emongo azken epaya, egokien deritxanez.

3'gn. Zaingo ontara ala beste bide batzutez ofelako eskaria len egin dabenak, eskabide baŕia egin begie agindu onen arauz. Eskari oferi, agindaritza, batza eta bazkunetako argibide ta agiriak geitutea, bakoitzaren esku bego.

4'gn. Nekazaritza Zaingo onek, Euzkadi'ko "Egunorokoa'-n argitalduko ditu eskari oetzazko iritzi ta epaŕak. Ofela, edozeñek lagundu al izango dautsa, erabagien egokitasuna ala bidegakekeria dan adiraziaz Zaingo oni, ezpai-dogu nai iñortxo be, guzuŕez ala azpikeriz bere eginbeaŕei zaputz eginda ikusterik, arinkeŕizko erabagiren bat dala bide. Olantxe, guztion onerako bedi.

Bilbao'n, 1937'gko. epala'k 19'gn.

Nekazaritza-Burukidea.

Pentsua lortzeko baimenak

Pentsua jasotzeko len baimena eskatu zuten bilbotaŕak, atzo besterik esan ba'gendun ere, Basteŕa'neko togi edo almazenetan lortuko dute (Uribitarte enparantzatxoan). Ona emen ortarako egunak:

20'gn. eguna (gauŕ). Lenago izentatuko egunetan jaso ez duten 1 zenbakitik 600'gaŕen arteraiñokoak. Izentatuko egun ontan jasotzen ez duanak, eskubide guztiak galduko ditu.

22'gn. eguna. 601 zenbakitik 750 arteraiñokoak.

23gn. eguna. 751 zenbakitik 900 arteraiñokoak.

24'gn. eguna. 901 zenbakitik 1.050 arteraiñokoak.

25'gn. eguna. 1.051 zenbakitik 1.200 arteraiñokoak.

26'gn. eguna. 1.201 zenbakitik 1.35z arteraiñokoak.

27'gn. eguna. 1.351 zenbakitik 1.500 arteraiñokoak.

Bilbao'n, 1937'gko. epaila'ko 15'gn.

Saleroskeŕa ta Orniketa Zaingo'an

Lasa jauna Valencia'n da ta juan ofen ordez Jakj ta Edaki ta Eroskeŕa Zuzendaritza Nagusia'ren Arduradun dan Etxebeŕia jaunak auxe esan eutsen izpaŕlariei:

—Ardanela - Batzakuekin batzaŕa egin dot eta izpaŕ on bat emon dautset; lenakuan emon zan eran eta neuŕiz datoŕen astean ardaua bananduko da; ofa izpaŕoi.

Jaboi-banaketea, nik uste dodanez datoŕen asteartez egingo da.

—Besterik zer?—itandu eutsen izpaŕlariak.

—Besterik ezer, be, ez; eŕitaŕak zelan ornidu astertzen gabiltz eta orniketa arazuoi ondo dua.

Egun gitxiren buruan ba-daike zuentzat izpaŕ jakingaŕiren bat nik izatea.

Orniketa Zuzendari Nagusi'kin jardunean

Zuzendari ofengana izpaŕlariak jo ebenean izpaŕlari batek goizeko izparingi batek baseŕietan ezer erostea gebentzen dauan legeak sortu dau zan ezpaiei buruz idatzi dauazanik irakuŕi daben galdetu eutson zuzen dari ofi.

—Agindu ori argi dago—erantzun eban Zuzendari orek—. Efi ta efitxuetako azokarik eragozterik ez dogu nai; oraiñarteko moduan jaŕaitu begie azokok.

Azoka ofeik jaŕaitzea beaŕeko da, ta azoka ofeitan jaŕaitako salneuŕiz gain ezer saltzen dan ala ez, be, olan jakin egin daike ta salneurik gain saltzen dauana zigortu. Baseŕietara erostera jaun-eta, ez ostera.

Il onen 25'gn. egingo dan banaketa baŕia gertetan diñardut. Banaketa ofetan, garbantzuak eta patatak emongo dira.

Atzo Somera-kaleko saloki batek Zaingo onek emondakoak zirala-ta janari batzuk saltzen ziñarduela esan eusten—jaŕaitu eban Zuzendari ofek.

Zaingo onetako ikuskariak bialdu nebazan, zer egoan jakin egien.

Lan asko egin beaŕa dabenentzat guztien banaketeaz gain egoan janaŕa banatu beaŕ ebanak, ola-jaubeak olean egiten ez eutsola laketu ta bere etxean banaketeoi egiten ziñarduan. Ola-jaube ori baiña neuk beartuko dodala nai ez ba-dau, be, ta olean egin dagiala esan dautsot.

Zaingo onetako agintariak dirala-ta ez dirala esames ta zuŕu-muŕu asko sortzen dira-ta, banaketa ori olean bertan egin beaŕ da. Zaingo onetako agintariak eŕurik izan ezaŕen, eŕitaŕen ma-miñean orogaitik ezin erabili daikez.

Baŕiro olakorik ez dot baketuko ta jasoko ba'litz banaketeaz gaiñetiko janari emoteoi eragotzi egingo dot.

Atxa Jaunakin baŕiketan

Zaingo'ko Idazkari Nagusi Atxa Jaunak eŕietara ikatza banatzen ziarduela esan eban eta eŕitara bananduta-koan Bilbao'taŕei bananduko yakoe, azkenengoz egin zan moduan.

Gizarte-Laguntza

Frantze'ra joan beaŕ duten umearekikoa

Oleron (Frantze) ugartera joan beaŕ duten umeak, len euren izenak emandituztenak, gauŕ goizeko zortziretarako Bilbao'ko Udaletxera joan beaŕ dute.

Ugarte ortarako joana al danik egoklen egiteko, jakinbeaŕeko gauza batzuk esango zaizkie ta Bermeo'rako belbiletarako, oaŕ auxe egin beaŕean gera.

I Belbila. 1 zenbakitik 45'gaŕen arteraiñoko umeak. Diez Perez'daŕ Augustin jauna buru.

II'gn. Belbila. 46 zenbakitik 90'gaŕen arteraiñoko umeak. Hernandez daŕ Geŕgori jauna buru.

III'gn. Belbila. 91 zenbakitik 135'gaŕen arteraiñoko umeak. Muñoz'daŕ Segunda jauna buru.

IV'gn. Belbila. 136 zenbakitik 140'gaŕen arteraiñokoak. Las Heras Miguel'daŕ Joseba jauna buru.

V'gn. Belbila. 181 zenbakitik 225'gaŕen arteraiñokoak. Ranz Lafuente'taŕ Imanol jauna buru.

VI'gn. Belbila. 226 zenbakitik 270'gaŕen arteraiñokoak. Diaz'daŕ Pernanda jauna buru.

VII'gn. Belbila. 271 zenbakitik 316'gaŕen arteraiñokoak. Jorge'taŕ Luziane anderea buru.

VIII'gn. Belbila. 317 zenbakitik 361'gaŕen arteraiñokoak. Bikario'taŕ Susane anderea buru.

IX'gn. Belbila. 362 zenbakitik 406'gaŕen arteraiñokoak. Azkona'taŕ Ines anderea buru.

X'gn. Belbila. 407 zenbakitik azkeneraiñoko guztiak. Vela Santos'taŕ Josebe anderea buru.

Oaŕa.—Udaletxera sartzeko, len emandako carnet edo agiria erakutsi bearko dute, nai ta nai ez, umeok.

Ordua: goizeko zortzirak.

Emakuntzak

U. G. T.'ko amargaŕen gudalorokoak, 210 laŕleko; Armendia'taŕ Gotzon'ek, 50; Toŕijos'taŕ Gilelma'k, 50; U. G. T.'ko Ufutizkinlari Langile-Batza'koak, 4.313,30; Bermeo'ko Gizarte-Laguntza bide, Iradi'taŕ Kepa'k, 727,50; Euzkadi'ko Komunista Alderdia'k, efefujiatuen Egunerako, 13.066,35; Barakaldo Maritimo Aragon, 13; U. G. T.'ko Gudalorokoak, gudarien umezurtz-alde, 750 laŕleko.

Danetaŕa: 19,740.15 laŕleko.

Lenen - malako Irakaskintza Zuzendaritza Nagusia

AGINDUA

Euzko-Araudiak batetik, eta Zuzentza ta Gogo-Lantze Burukideak artutako erabakiak bestetik opa dizkidaten eskubideak erabiltzera noa. Zolo'ko Udalaren asmoa ontzat emanaz. Bizkai'ko Zolo'n, Euzkadi'ko Ikastola bat sortu-eraztea da, "Eleizbaŕen" izenez. Irakasletza, izendatzera goazenaren gain izan beaŕ beiŕ-beingoz: lenen -malako Irakasle da Ispizua'taŕ Miren Eskarne. Ikastola sortu beaŕa Euzko-Jaurlaritzaren agintepean dago; eta Zaingo ofen zenbat-usteari erantsita diru artu-emanetaŕako.

Bilbao, 1937'gn. epailak 17.—Lenen -malako Irakaskintza Zuzendari Nagusia, Amezaga'taŕ Bingen.

LORETXO
ELEBERRI - EDESTIA

Zarauztaŕ gudari kementsuari, gelgaŕi ta maitasunez

X.

Loretxo:

Zure idazkia nereganatu da. Biotz barnean ukutu dit nere uri maiteko beŕi saminganiak irakuŕiaz. Zure gurasoen gaxotasunan beŕi eman dirazu. Yainkoak nai dezala gaxotasun labuŕa izatea.

Biotz ankeŕak zirala ba'nekin, baña, diozuna irakuŕi ondoren nere ustea txiki geratu da; nunbait, gure biotzak ez lezakena ez degu uste iñork lezakenik.

Konturatzen naiz zure naigabeak aundiak izango dirala, zeure begiakin ikusiaz paxisten ankeŕkeriak. Eurkotaŕ zintzo oro, naiz ta orain arte abertzale areriorak izan, dakusten ankeŕkeri ondoren, abertzaletasuna ondo ikusten amaituko dute. Ez aalda egia, Loretxo?

Emen, txaidetan arerioa pranko ba'da-bil,.. eta zuek Ama'ren bulaŕean ikasitako izkuntza zoragaŕia mintzatzen ere eragotzia.

Biotz gabeko saltzale oiek gofoto bidez guda irabazi nai dute, baña, azpiratuko ditugu maitasunez gudaratu geran gudarozteak.

¡Nere uri gaxoa! ¡Ene, maitetxo! Itxaropen osoa euki ezdau gurenda gurea izango dala. Euzkadi'ko Jaurlaritza daukagun ezkero gudaroztearen eta biztanle guzien aldakuntza aundia izan da. Jakiña, onerako, gurenda biderako.

卐 卐 卐

Deun Ander egunean Legutiano (Villarreal) guda onetan gadaurka ekiteko beŕia eman ziguten. Aitortu ta Yauna artu ondoren guda oñeratu giñan. Beŕi onek oroimeneratu zizkiran oldozkun ugari. Biotz bera nabaitzena nitzan, beg'-biotzetan dakustela geina maite ditudanak. Jauskain aundiena ere nekerik gabe egiten da maitasun laguntzaz... Gofoto bitarteko dabiltzaren gudariak ez lezateke maitasun indaŕez dabilena aurka, ezer.

Gudaketan adoretsu izateko iru oldozmen erabiltzen ditut. Lenbizi, lan nekeak Goiko Yauna'ri eskeñi. Bigaŕen, azkatasun aldezle naizela eta irugaŕen, agintariak ematen digun lan amaiangozu zaudela. Iru oldozmen uek ematen diten kemenez nenerik gabe gudatzen naiz...

Deun Ander egunean Legutiano'ko guda oñetan egin gendun gudaketatzaz zerbait esan bear dizut. Izugaŕia izan zan.

Goizeko bostetan gudauzkari ekin giñon. Iru anei neurkin aufera egin gendun areriorik ikusi gabe. Legutiano'ko uria ikusten degula jaŕi gera eta arerio gudarozteak ekin dio.

Arerioak tiroka asi ziranean, ¡ekin, mutilak!, deadar egin nion gudari lagunei. Izkiluaren paŕkun otsa, ametraladorak, papa paaaa. Kañoien buuuu ango su ta izkanbila edesten ez da eŕaz. Aufera goaz eta Legutiano gure menpean eroriko dan itxaropea osoarekin...

Legutiano'ra uferatzen ari gerala buru gañean egatuaz amaika egazkin arerio. Egazkin, zun zun otsa entzun gendunean lufean etzan giñan eta egazkiñak ekin zion ametraladorak ustutzen. Belaŕi ertzean daukat oraindik yun yun yun otsa.

Une bildufgaŕiak ba'ziran ere ez nuen bilduŕik nabaitu...

Egazkiñak aldegin zutenean beŕiro ekin giñun gudauzkari eta alkat bizkortzen gudariak. Ondo oroitzen naiz esan nuenean. ¡Aupa, mutilak! ¡Legutiano artzera!... Nere ondoan nuen Anastaxio uriaŕ gudari tenientea eta nere diadaŕari erantzunaz, ¡eutsi, mutilak, oraingoan artzen diagu ta!... eta bereala ¡¡ama!! biotz baŕengo antzi bat egin ondoren zeŕaldo erori zan. Jaso eta bereala Borda basetxeko seme nagusia eriotz zauriarekin erori zan.

Gure aldamenetik zijoan "Itxarkundia" saildia eta Legutiano'ko saŕeran dirala. Gorostitza, tolosaŕ gudariak, esku batean izkilua eta bestean euzko ikuŕiña daramazla, ¡gora Euzkadi azkatuta! esan zuenakin batera bi balasorekin il da zeŕaldo erori zan. Alaz ta guzi ere "Itxarkundia" saildiko gudari batzuek Legutiano'n saŕtu ziran. Ezagutzen dituzun batzuek izenak emango dizkizut. "Urdiña" Legutiano'ko urian saŕtu ta gero il zuten. Gimon, anai bat ere eta beste anaia zauriruta zegola rekete zauritu bat bizkaŕean zuela etoŕi zan beŕiro. Auek guziak tolosaŕak dira, dakizun bezela. Lizardi zanaren anai Andoni ere esku batean izkilua eta bestean Gorostitza'k zeraman euzko ikuŕiña artuta, Legutiano'n saŕtu zan eta bertan euzko ikuŕiña etxe galur batean jaŕi ta beŕiro bere saildiratu zan. Konturatzen altzera euzko gudarien kementasunarekin?

Gudaketa onetan beste zazpi uritaŕ ere zauritu ziran. Irusta basetxeko semea ere gudaketa onetan zauritu zan. Urdalean tiro bat saŕtu zioten. Eriotzakin bofokan ebiliaz ebakuntza egin ondoren oso osatua dago eta beŕiro gudarozteatu da.

¡Zoritxaŕa dabilki sendi maite onexek! Gurasoei beŕi ona eman diozu, alegia osatu dala. Egazkiñak izan ez ba'ziran, Legutiano artuko gendun eta egazkiñak zirala ere, aftu bear gendun, baño...

Deun Ander egunea lenago ere euzkotaŕak guda gurenda urteufena ospatzen degu. Gure asaben gurenda oroigaŕi egunean, Legutiano'ko gudakuntza ez da aztuko bertan giñan gudarientzat.

卐 卐 卐

Orain, Bilbao'n naukazu egun batzuetarako atsedentzera etofita. Bai ta ere esan bear dizut ariratzen naizenean bizitza zintzoa daramatela. Zu, ain ona izanik eta nereganako maitasun sutsua da'ustala nola ez naiz zintzoa izango, ni ere egaŕi berakin bizi ba'naiz?

Guda onek luzatzeko itxura dauka, baña, naiz ta luzatu garaile izango gera eta garaile gerala gure ametsa beteko da.

Oraingoan iristen ez ba'degu Euzkadi'ren eskubideak, geureganatzea, noiz beŕiro orain bezelako egokierik?

卐 卐 卐

Espetxetik atera dan batekin bialtzen dizut idazkia. Ingelandaŕ itxasontzian Donibane'ra dijoa. Udaldia gure urian igarotzen du eta agindu dit eskuz-esku emango dizula.

Erantzutean, dakizun bezela uriko beŕi egaŕi naiz eta ugari biali, nere poz aundienetakoa zure idazkiak irakurtzea dana.

Neguan biotzean gaude. Nere atsedenaldi onetan Bilbao'ko zumardi batean, aulki batean exerita nagon une oldozkuntsu onetan, zuaitzari begira nago eta ez det ikusten, ez txori abeslari, ez osto muskeŕik eta une itun onetan zualtz batean, loretxo bat dakust eta ba'dirudi loretxo ori ikusiaz nere maitea dakustela, ¡Maitasun iru dimenak noski!...

Aguŕ, Loretxo, nere kemen euslea. *Yon.*

MENDI LAUTA

AROTZ BAT TXARA DA EUZKADI'RENTZAT, BAÑA ASKOZAZ TXARAGO DA BERA EZAGUTURIK ABERTZALIA EZTAN EUZKOTARA.

BILBAO'KO izparringijak diñuena

"Euzkadi"

Sendi-lantsarijatzaz deragoyo. Eta auzi onetan, beste izpaŕingi batzukandik u-undubaz, sendi-lantsarijaren aldez ageŕtuten da.

Lantsarija sendijekanatutiaz lan-etoŕkiñen saneuŕija geŕutia dala-ta lantsari ori ezestuten dabenai, ereduz argiŕutako argibidiakaz erantzuten dautse.

Lana ondo ordainduten dan tokijetan, lan-etekiña ondo ordaindutia be, bidezkotzat agertuten dau.

Ipaŕ-Amerika eŕa lana geyen ordaintzen dan eŕija. Lan-etekiñak be baña, alantxe ordaindu biaŕ ixaten ei-dira lateŕi aretan.

Eta alan ez ba'litz, zuzutsa oker erabiltia ixango litzake ixan be. Garija erein eta ogija egiteko urunduten daben langiliari ta ogija egiten daben ogigiñari be lantsari aundija emoten ba'yako, areik ogiŕu ixan daben ogijari be, saneuŕi aundija jaŕi biaŕ. Egi ori ikusi al ixateko betaufekorik ez da biaŕ baŕiz.

Emen, ludijan, alan biaŕ be-ta, gauza batek beste bat eskatzen dau. Oski giñak, esaterako, oski bikotxagaŕik 50 laurleko aftu ixan ba-dauz, txinditza ori ordaindu ixan daben salokarijak, lan etekiñetik bixiko ba'da, bixi, 5u'etik gorako saneuŕijan saldu biaŕko dauz oski areik.

Edozetara be, baña, lantsari txikija irabaztia baño lantsari aundija irabaztia obe da langiliarentzat.

Langiliai lantsari txikija ordaindubaz lan-etekiñen saneuŕija gitxiŕutia obeto yatofkenak, lanik egin barik, txindi etxietan dauken txindi etenkiñakaz bizi diranak dira. Ofelk, ba, euren eskubetara elduko ez diran lantsarijak geŕubaz, geitze ofek garestiŕu ixan dabezan lan-etofkiñen zamaz zamatuta geratuten dira.

Langiliak ez. Langiliak, lantsari geyago, ta obeto bixiko dira. Bai bem.

"Lan-Deya"

Españaŕ eskumataŕen efakuntzak ez dirala amaiu diño.

Guda onetan ikusi ixan diran irakatsijak bide dirala, guda-auŕetik okeŕeko bidietatik ebiltzan eskumataŕoik zentzuneratuko zirala uste zan aŕen, oŕeik betiko setatijok lengo bide okeŕetatik ei-dabiltz orain be.

Eŕijen azkatasun-eskubiderik ezin uleiŕtu e-dabe, Eta egija ikusi gura ez daben españaŕ eskumataŕoik, ezpaya baño besterik ez daben eŕiketeari eutsi eziñik ei-diñardube.

Guda au dala-ta españaŕ eskertaŕakin batu biaŕa ixan dogun abeŕtzalioi eragoten, baŕiz, aspertu be ezin ei-dira. Euzko-abeŕtzaliak, baŕiz, gudeak eŕi-aldez igiŕu ebazan eskeŕtaŕaj gudaldirako laguntzea egiŕen ba gabiltz be, geure eskubidiak baztaŕtuteko asmorik bein be ez ei-dogu ixan, eta ixango bez.

"El Liberal"

Clichy, France'ko jazokunetzaz idazten dau. Jazokun ori, France'ko paxiotaŕak atian egin ixan daben cupadea e-da.

France'n paxiotaŕ asko bixi dirala diño. Eta gobernuak aldiz neuŕijak aftzen ez ba-dauz, aftu, France'ko paxiotaŕak aufera juango dirala.

Beste aldetik, baña, irancetaŕak, gitxi lako abeŕtzaliak dirala autoftuten dau Eta abeŕtzaliak diralako, Alemania'ren arerijuak dirala.

Alan be, baña, La Rocque koronelak, atzeŕitaŕen paxiotaŕtasunaz aftu - emonik asko ixaten ei dau.

Clichy'n jazo ixan diran jazokunak ikusi ondoren begijetako lausuari astiñaldi bat emotia ondo ixango ei litzake, baña. Bestelan, gatxari astija emoten ba yako, emon, gatxa aufera juango dala. Eta gero atzerantz eragin biaŕa danian, zeregiñak-zeregin emongo dabezala.

France'ko paxiotaŕak ate-joka asita ei-dagoz beñepein.

"Tierra Vasca"

Catalunya seneratuten asi dala diño. Bi degetuta bixi ixan e-ta, izkuntzea gañokua bazteŕtuten asita.

Kalterik geyen egin ixan dabenak, gogai bako gastedi lokea ixan e-la. Agintaririk ez iñor ezagututen ixan ez daben gastedi txoriburubok iñori be ez ei-dautse lotsarik ixaten ixan. Abeŕtzaletasunik be ez ei-la-be nabaŕuten ixan, ez da gixabide-egaŕirik be.

Catalunya osua naspilduta, eŕi goguagañokua galdutzat esten asita egon diranan, baña, Catalunya itxaŕtuten asi e-da, ikusmena ilunduteko begijetaratu eutsoen estalki baltza astinduten.

Orain, Catalunya, egijari begira jaŕi da, bere buruba aldeztuten, paxiotaŕai erasuaz Catalunya'ren azkatasuna aldeztuten. Catalunya bere seneratu da.

"Euzkadi Roja"

Gure arerijo gustijak ez dirala bardiñak diño

Batzuk, agirikuak ei-dira, ba. Eta beste batzuk, ixilpian dabiltzanak.

Ixilpekuok ei-dira ereijorik txaŕenak, ondo zaindu ta iñora urtetan laga biaŕ ez litzakijuenak.

Hernandez'taŕ Josu'ren asmo bat agertzen dau. Guadalajara'n eŕi-aldezlien espe jausi ixan ziran italiaŕ gudarijak, euren eŕijetara bidaldu gura ei-dauz, arek.

Hernandez'en asmo oŕi ondo deritxola diño.

Gure aŕtian aurkitzen diran areriio gustijei beste aldera juan dagixantzat juakerako txartela ordaindu gura ixatia, baña, beste gauza bat dala diño.

Arerijuak, arerijo, arerijo mueta asko ei-dagoz...

"El Noticiero Bilbaino"

Faciotaŕak koldaŕtuten asita ei dagoz. Eta euren koldaŕkerijetan gudoñerik-gurdoin oldaŕtuten iñarduteko adorerik ez da, gudeaz exctariko ikusi biaŕik ez daben baketsubei erasoten ei diñardube.

Eŕi oŕeŕako bat Elgeta ixan ei da. Elgeta'n, baŕiz, gudaririk ez gudornijak egiteko olarik be ez ei dago.

Eŕijetako sendijen bixilekubak deuseztubaz ez ei-da gudariŕ irabazten baŕiz.

Eŕi-aldezliak, ostera, gentza donian bixi diran sendijei oldaŕtuten astija galdu barik, gudornijak egiŕen diran olaetara oldaŕtuten ei dabe: Afasate'ko "Elma" oleari ta aŕaŕ.

Paxiotaŕen egazkiñak etoŕi-aldi txiki bat egin e-eben. Suagarik eta ez e-ben bota, baña. Suaga-berunbilak botateko astirik ixan be ez e-eben ixan... Lekeitio'ko eŕi-aldezliak, egazkin-aurkako suaga-bideberiala iges-eragin ei-eutsen.

Donosti Buru Batzaŕa

"Kizkitza,'ren (G. B.) idaz-lanak argitaratzeko, Donosti - Buru - Batzaŕ, asmoa beterik, zabaldu ta dagon aŕpidearen jaŕaipena.

Oraindañokoa, laurleko ...	3.251,50
Emakume bat ...*...	5
Beste bat	1
Antziñako "Gipuzkoaŕa,'n irakurle bat	10
Legoŕeta'taŕ E.	10
Soratzu'taŕ M.	2
Gipuzkoaŕ bat	5
Ariztondo'taŕ T.	5
Ariztondo'taŕ K.	10
Gaur arte	3.299,50

Bilbao'n 1937'go. epailak 18.

DONOSTI BURU BATZAŔA.

IZTEGI TXIKIA

Euzkeraz irakurtean oituta eztagozan euzkeldunak itz asko ez ezaunak aurkituko ditue, noski. Eta orain iztegirik zuzentzea gaitza dan ezkero, irakurleok IZTEGI TXIKI au bitaŕte dala beaŕ izango dabezan azalpenak izango ditue.

Azalpenok astean bein, ofetarako izentauriko egun baten, egingo dogus.

Beraz, ba, itzen baten ikurpenik edo esangurarik yakin nai ba-dozu, izparingi txatal auxe bete, ebagi ta itxi bako idazkazal edo sobre baten, zentimo biko ikuŕatz edo sello bategaz zuzenbide onetaŕa bidaldu egizu:

EGUNA
Correo, 17, 2.°
BILBAO

Itz ez ezauna	AGERTU DAN			
	Zenbakia	Ingoskia	Z fendea	Lefoa

Bidaltzailen izena .....

Etxa .....

ATZERRIKO IZPARRAK

Arma gayetan Japon'ek eztautse iñoren eskabidiei jaramonik egingo

Balkandar eŕiak alkartu nai. - Mussolini'ren guzuŕak. - Frantze'n lan sariak obatu.-Egipto'n guda-maniobrak.-Zaŕak goratzen Japon'en.-Miñetako zoritxaŕak. - Ribbentrop, laŕi ta urduri. - Beste izpaŕak.

MUSSOLINI'REN GUZUŔAK

Tripoli. — Mussolini'k itzaldi bat esan eban atzo gabean. Italia oso-osorik bake-tsua dala eta bere lan guztiak bake alde dirala esan eban.

LAN-SARIAK OBATU

Paris. — Ogasun zaingoak lege-gai bat onartu dau. Ori dala ta eŕi langilei lan-sariak geituko yakoez datoz-en iletik aurera.

URIOLAK

Londres—Ouse ibaya goraka dua. Cam bridge ondoan dike bat apuŕtu dau. Eŕi asko uretan dagoz eta jenteak eragopen ugari ditu ibilteko. Ba'dira estu ibili diranak be.

TOKIA ALDATU

Londres.—Uste danez Croydon'go egaz kin zelava Lullinstone'ra aldatuko da, leku aretan gurma ugari egoten dalako.

TXITXIBU EŔEGE-GAYAK

Tokio.—Txitxibu efege-gayak Yokoama' tik Vancouver'erako urten dira "Heian Maru" itxasontzian. Berari laguntzen eta zaintzen "Shickaze", "Nadakane", "Yukaza" guda-ontziak eta ogetabat egazkin juan dira Tokio'raño.

Aguŕ egiten eun mila lagun baño gera go batu ziran.

GUDA-MANIOBRAK

El Cairo.—Bost mila ingeles gudari maniobretan dabiltz eŕi onen bealdean. Egip to'n egoten diran egazkiñak be ba'diardue. Eurak ikusten sir Miles Limpson eta Cornwall mariskala dagoz.

ZAŔAK GORATZEN

Tokio.—Lege-etxean, atzo goizeko batzaŕa zaŕak goratzen igaro zan. Ogetamaŕ urte baño geyago parlamentuan daroeza nak dira eurok. Euren artean Tekugaba printzipea dago. Onek befogeta saspi ur te daroaz parlamentuan. Gero Miyake datoŕ. Onek befogetasei daroaz. Kuroda ordoren befogetabostegaz; Matsuraida, oge ta emeretzigaz eta Aoki, lenguak bestegaz.

JAPON EZTAGO MAKURTUTEKO

Kokio.—Agintari etxetan diñoenez Ale mani'k eskabide bat egin dautso Japon'eri, kañoyen indaŕa eta lodiunea laburtzeko eran.

Japon'ek baña erantzun ziatza emongo dautso. Ez ei dago gertu arma kontuetan iñoren eskabidiei jaramonik egiteko.

BALKAN EŔIAK

Ankara.—Balkan eŕiak alkaŕtuteko egi ten diran lanak aurera doaz. Antonescu Rumania'ra juan da gai ofetara jarduten. Eguaztenian Efepublikako lendakariagaz egon zan.

Afatsaldean, Turkia ministruak jataldi bat emon eutson. Egin ziran itzaldiak anaikoŕak izan ziran eta balkan-eŕien al kaŕtasunaren alde jardun ziran.

ITALIAŔIK NAI EZ

Paris. — Erakusketa Nagusiko italiaŕen etxean langileak saŕtu ziran. Ezkeŕtaŕak ziran guztiak. Uste danez paxistei Clichy' ko jazokunak sortu daben asaŕea ager-tzearen egin dabe.

JAPON'GO MIÑA BATEN IL DIRANAK

Tokio.—Mochikoseni'ko uŕe miñan jaso dan galtzea dala-ta Aldundian eta Aldundi Nagusian eztabaida zoŕotzak izan dira. Miñan sortu zan sutea atzo itzaldu eben eta gaberdia ordurako atara ebezan bederatzi gorpu.

RIBBENTROP LAŔI TA URDURI

Mosku—"Pravda" izpaŕingiak Londres' en daben izpaŕlariak idatzi dabenez, Londres'ko Ikastola Nagusi'ko edesti-asterke ta saila ikusten izan zanean, ikasleak aŕe ra onik ez eutsen egin, bai ostera euren asaŕea adieraso. Ikastola Nagusi'ko ata-dian eundakaz ikasle paxistak aurkako iragarki aundiekin zain egozan. Von Rib bentrop zuri-zuriegin ei-zan eta ertzaiñak lagun aŕtu aldendu egin ei zan.

DETROIT'KO LANGILEAK ESPAÑA' KO ERKALDAŔEN ALDE

Nueva York.—Españaŕ langileen alde arpide bat asi dabe Detroit'ko langileak. Dirutan bi mila dolar, eŕopatan bosteun dolaŕena ta ostingo gauzetan irureun in guru batu dabez orain arte. Beste urietan batu dabezanekin batera igoŕiko ei-dabez.



Gauŕ goxion urtengo dira Frantze'ko Oleron ugartera bosteun ume. Gudonizi onetan juango dira. Aguŕ neska-mutikuok. Ondo ibili.

Atzoko egunez

"Itxasalde" guda-saildiaren ikuŕin baŕaren onespena, ospe edeŕez egin zan Laudio'n

Eleiz - jai zindoak, eŕi - jai alayak

ALAI ETA ADORETSU!

Itxasertzetik uŕun, kresala usañetaz asago, zeali urdiñen ordez lautada zabalak dagozan baŕuko luŕaldetan izan dau atzokoan egun gogoan gaiŕa Itxasalde guda-saildia'k.

Egun edeŕ, egun oso, jai bikain eta jatoŕa atzokoa. Euzko luŕetan zeaŕ, abeŕiaren zatiak euzkotaŕentzat baŕiro eskuratu beaŕez izango ditugun gudaldi eta buŕukaetan, auŕetik, agirian eta edeŕ, buru buŕuan eroango dauan ikuŕiña, ikuŕin baŕia onetsitea izan eban atzo Araba'ko uri polit eta begiko batean.

Egitarau atsegiña biribildu eben lai oŕetarako, eta aurtengo Joseba Deuna'ren egunez, Laudio apañean bete -betean ospatu zan egitarau ori.

Olakoxe joan eta arduraz jardun bai-eben aure - egunetan, zertzelada guztiak antolatuaz, jaikun bakoitza atonduaz, gorabera guztiak gertauaz, joan-etoŕi oro erabagiaz, ausi-orazi eta zeaztasun ezerezenak zuŕ eta egoki burutuaz.

Paris'ko opoŕa

Paris.—Clichy'ko masteak eta paxisten azpikeriakaŕen euren asaŕea erakusteko asmoz Frantzea'n arañegun bi miloi langilek opoŕa egin ei eben.

Opoŕ baketsua izan zan baiña. Uriko ibiltoki batzuetan izan ziran goragoŕaka batzuk. Froint Populaire'koak batza ori goratuaz ta paxisten aurka ojuak egiñaz ibili ziran eta.

Etxe-ormetan-eta, iragaŕkiak ezaŕi ebezan eŕuz ezaŕi, be. Iragarki oŕeitan len banandu ebezan gudari-zisako taldeakoetakoak orain sortuta dabezan politika-alderdiak apuŕtu dagiazala eskatzen yako Gobernua'ri; ertzain-agintaritzan dagozan paxista-zaleak, be, kendu dagiezala Agintaritza oŕeitatik eta Lateŕi-otseiñen aŕteen dagozan paxista-zaleak, be, otseintza oŕeitatik aldendu egin beaŕ diraja eskatzen da.

Opoŕ orokoŕoi Sindikatuen aginduz sortua ez zan eta arañegun goizez Sindikatu Batza Nagusia'k egin eban batzaŕean langilei lanera biuŕtu egizala eskatzea erabagi eben.

Eguardi alderuntz opoŕoi metu zan: belbiiak ibilten asi ziran eta eguerdi ostean langile guztiak biuŕtu ziran lanera.

Goizeko amaika ta erdietan Blum jauna eskertar - aldun edo diputaduen Batzorde arekin batzaŕtuta egon zan.

Batzorde oŕetako lendakariak atera ziranean batzaŕetik, batzaŕ oŕetan Froint Populaire'ri oraiñarte eutsi dau tse batasunagaz, aurera be, eustea erabagi ebela esan eban.

Lateŕi-arlo arduradun Dormois jaunak komunistei mitiña egin egien baimena emon eutsela esan eban.

Buru eta menpeko, agindari eta gudari soil, bakoitzaren eginbeaŕ eta arloari lotuak genduezan, bizi eta pozik. Orain bake-aldiŕxoan, alaitsu buŕuka unetan. Itxasoaren magalean oziak bai-dituzu geyenok, edota itxasoari begira gogoak landu eta zentzumenak ezi dituenak. Gentzaldian otzan, gudukoan, bularts! Oŕa euzko gudariak.

TXISTULARIAK

Arañegun iluntzean, jayaren aziera uŕatu eben txistulari gazte eta azkaŕak, kalez kalc jai-besperetan euzkotaŕok oi dogunez, eresi alayak joaz. Bai eŕitaŕak pozik jazo be gudarien asmoa. Eŕiratu ziranean aŕera ona baño obea egin ba'eutsen egin, jayotara eŕiak osoro eldu zan.

Izan be, itxasaldekoak gatza eurekin dabe-ta, eŕiaren izaera epel eta ituna, azpikoz gora iraubi eta gaztetasunaz, alaitasun eta poza nunai zabaldu daroe.

GOIZ-ERESIAK

Atzo, egun-sendiaz lasteŕ, txoŕien kaantuak zelai zeaŕ edatu ziranaz batean, txistulariak, soñu bizi eta pozgaŕiaz eŕitaŕ oro, zaŕ eta gazte itzartu zituen.

Andik gerora, goizeko zortziretan eŕeskada luzietan, gogo garbi, musa argi, begiak zabal, biotzak bizi, gudari kementsuak eleizara eldu ziran. Meza eta jaunartze orokoŕa zituen, eta Mai donera banan banan eldu ziran. Ikuskizunaren biotz-betegaŕia!

MEZA NAGUSIA

Amaiketarako, eleizea plen - plen egoan jendez. Joseba Deunaren eguna ospagaŕia bai-dogu euzkotaŕok, beti bere, eta atzokoan uri onetan, zer esanik ez.

Gudasail bakoitza, izkiluz, leŕokadaetan eldu zan meza naguzitaŕa. Ez egoan tokirik geyago iñorentzat, ez beian ez goyan.

Lon Aba, "Aita Leon" jaupa egile. Abeslekuan kantari mordoa, Ordorika' ren eres-aginduetara eta txauneskindari, euzko-ereslari jatoŕiko bat. Perossi'ren iru abotsetako meza abestu eban, eta azkenean, gudari ildakoen aldez, "Liberame" egile berberarenak. Jendea eleizatik urteterakoan, "Aguŕ, jaunak", organuz.

IKUŔIN ONESPENA

Zeru urdinpean argi eta ikusgaŕi egoan uriko enparantza polita. Ezpatadantzariak, gudariak eŕeskadetan, eŕitaŕ ugari inguruetan, ikusle asko etxe-leyoetan.

Eres-tokian gudari-buruak, Rezola, guda-zaingoko idazkari naguzia, zabal koronela, Arbes kapitana, laguntzale izardunak, eta abaŕ, eta abaŕ.

Ara, Itxasalde'ren ikuŕin edeŕa lau azietara zabal. Amabitxia, Zenikazelaya andereñoa. Emen dira eleiz-gizonak eta bereala, "gudarak, zuti!" turutak ots, "izkilu-aguŕ" ikuŕiñari. Onetsi dau jauparlak ikuŕiña eta ixiltasun zoragaŕian, "Euzko-Abendearen Ereseŕkia" txistulariak. Angotxaiotsa!...

DANTZARIAK

Agindari eta ikuŕiñaren aure-zear, guda-uŕatsez, salak sail agurka, eta dantzariak ditugu plaza erdian, eŕiko jendez inguratuta.

Ezpatadantza ekitaldia. Iru talde, oi bezela jantzita. Amabi ta erdiak ondo jota, eta lapikoak ereten nunbait, bañan iñork bere zotiñik ez. Nork alde jai aretatik? Ezpaitabe eguneroko gauza, alako gertaera!

Ikuŕiñari-aguŕ, banakoa, ezpatena, biñakoa, makiletakoa, launakoa, txakaŕankua, bizkoŕ eta zailu guztiak, jasean eta ikusgaŕiro dantzari bakoitza. Eta gero?... "Kaxaŕanka" lekeitiaŕ dantza zaŕa, kaxa jatoŕaz atan be, eta dantzaria be benetakoa: "Pedrotxu" azkaŕa. Ausi dok gazte!

BAZKARIA

Oingoan bai asi da gaztedi edera bakoitzaren etxietarantz. Bazkari-aldi da. Gudariak, gudaletxe bidean txalo otsetan; eŕitaŕ gazte eta zaŕak pozez gañezka. Batasun zoragaŕia, bakoitzaren urietatik uŕuti be. Guztiok euzkotaŕak izaki, kistaŕak guztiok.

Bazkari berezia "espeziala' gudari guztiak.

Danak iŕibaŕez. Izpaŕkari nozuen au, bazkaldaŕ deituen artean, konbidau nenduzuen. Agindari nagusiak antxe egozan. Ikuŕiñaren tayu-asmatzalea be, antxe genduan, Amantzi ikurdiztirala jatoŕa.

Bazkari azkenetan txistulariak ezeze, eresbatza txiki batek be jardun eban. Eta abestiak be entzunerazo ebezan.

KIROLAK

Pelotatokira eŕitaŕak ugari eldu ziran, gazteak batez be. Laurak eta erdietan asi zan lenengo pelota jokoa; Batzokien txapelketan asi izan diran pelotariak jardun eben. Batzlokoak oneik be.

Ondoren, soka-tiraka estua. Jentia "atezuan' ibili zan antxe. Anporak ebagiten ekiñaldi gogoŕa zeñek lenago. Ta gero... eŕomeri alaya izan ei-zan, baña, zoritxaŕez izpaŕkariak orduko aldegin beaŕa izan.

Aguŕ, Itxasalde'kuok, biotz on, eta garaitza zuekin!

BILBAO'KO IRRATIZ

Asteroko euzkel-iŕatsayoa gaur, gabeko zortzi ta erdietan

Larunbatęro bezela, gaur bere, oi dalako iŕatsaioa izango dogu. Euzkel-ordua, alegia.

Ordua, bestetakoa bera, gabeko zortzi ta erdiak, eta egitaraua ostera egundoko politena. Astean baño astean atsegiñagoa izaten bai-dogu geure ekitaldi begikoa.

Ona, ba, gaurko sayoaren.

EGITARAUA

LENENGO EKITALDIA

1. "Jagi-Jagi", Kerexeta'taŕ Joseba Mirena'k, pianuz.

2. "Zelayetakua" olerkia, bere egile "Goxabaŕan,'ek irakuŕita.

3. "Zeuretzat bixija", abestia, "Kirikiño,'ren izkiz, Arana'taŕ Dorote andereño aboskoiti azkaŕak abesti, eta Kerexeta'taŕ Jagoba'k pianuz lagunduta.

4. "Itxasua laño dago" maite-kantua, Kerexeta'taŕ J. M. ereskiñez.

BIGAREN EKITALDIA

1. "Anboto'ko damia" edestitxua, Kerexeta'k irakuŕia.

2. "Txomin eta Bartolo", bertsolari-guduko neurtitzak Arana andereñoak abestuta. Kerexeta, pianu lagun.

3. "Abaŕak", "Kirikiño,'ren ipuin bi, Kerexeta'taŕ J. M. jaunak esan da.

IRUGAŔEN EKITALDIA

1. "Ekatxa itxasuan", olerkia, bere egile "Goxabaŕan,'ek irakuŕita.

2. "Neure andria", abesti iŕitsua, Kerexeta anayak. Loreskiñez laguntzale, Arana'taŕ Dorote andereñoa.

3. "Totopintotxu", Kerexeta'k esan eta abestua, ta Arana'k pianoz ereskidetua.

4. "Agur, jaunak", pianuz, Kerexeta'taŕ Jagoba'k.

Euzkeldun entzulearen gogoko izanko da, bonetan be; emen, eta urunago dagozanak batez be, egaŕiz dagoŕ abeŕiaren soñu eta izkuntza entzuteko. Batzuk paxisten mende, beste batzuk Abeŕi'tik uŕuti.

ETXE ALDAKETA

Baldwin'en asmoak

Londres. — Baldwin'ek agintaritzea laster lagako ete daben ustea dago. Jaun oŕek etxe bat erosi dau Belgravie auzuan.

Etxe oŕetan datoŕen eguanian saŕtuko da.

Politikuak eztakie Baldwin'ek ontzat aŕtuko ete daben emongo yakon aberats titulurik.

Diñoenez Baldwin'ek bere diru asko politikan gastau ditu eta origaitik ezin esan lei zenbat diru daukan.

"ONIK DA ZURE SEMEA..."

Berlin.—Paxistaŕen-alde gudukatzen asi diran alemaniaŕen gurasoak urduri ta laŕi dira. Geroago ta urduri ta laŕiago.

Guda-Zaingora semeaŕen galdez joan oi dan ama gajoari, labuŕ erantzun oi diote: "onik da zure semea ta ez dezu laŕitzeko zioŕik".

Amaren begiak itz egiten balekite...

EUZKO IŔATETXE BERIA

Barcelona. — Euzko - Gobernua'ko Agintaŕitzaren delegau-etxean, Kataluña'n, Euzko-iŕatetxea zabaldu dute.

Agintaŕi-ordezkaŕi asko batu ziran bertara.

BATZUK DUTEN GIBELA...

Tripoli.—Oraiñtsu itzaldi bat oguŕ du Mussolini'k. Italia, "paciŕista", bakezalea ei da, bakezalea.

Abisinia'ko gudate ondoren, Erkal-Gobernuaren aufka eun-miiako taldea España'raŕtu ta oraindik ere... "paciŕista"?

Bizkaŕ, zabalen jate degu beintzat gure Mussolini.

PAXISTAŔ BATEK EMBAJADORE BAT ZAURITU

Paris.—Teliun, Bruselas'ek embajadoriaŕi, Bruselas'erakoa aŕtzera zijoala, neskatila batek su egin zion eta -teŕa zauritu. Magdalena Fopagini da neskatila oŕi eta italiaŕ paxistaŕ entzutetsu baten iŕtu-eman aundikoa.

Zauritutakoari osatebakuntza egin diote ta ez du laŕitzeko okeŕik.

Izpaŕkaria da neskatila; Mussolini' rekin bi izketaldi egiña.

Oietxek dira "pacipistak", bakezaleak.

INGLATEŔA'N DIRUTSUAK GEITU

Londres. — Irako urtean Inglateŕa'n beste 43 "millonario" baŕi egin dira. Orain Inglateŕa'n 824 "millonario" ei dagoz.

2.000 libra esterlina bajño, geiagoko eŕentak urtean jazoten dabezanetan 2,030'tik gora ei dagoz.

RUSIA'N POZIK

Moscu. — Pozik ei-dagoz Rusia'ko agintariak. Baltzakeri edo komunista batzaŕen aurka zerbait esan ebanaren, Japon'go Erbeste-araz- Arduradun Soto jaunaren itzaldia abegi onez aŕtu dabe Rusia'n.

Soto oŕeik Rusia'kin matxiñadea astea bilduŕgaŕi ta gorotogaŕi yakuela adieraso eban ixilka-mixilka begeren.

Japon'en eraso bilduŕak guztiz uxatu dauz Rusia'n Soto'ren itzaldi oŕek.

Frantzia'k eta Inglateŕa'k Alemanja' ren eta Italia'ren galdarei emon dautsen erantzuna, be, onaŕtu egiten dabe. Paxistok Frantzia ta Inglateŕa alkaŕengandik banantzea nai izan dabe, baiña ez dabe loŕtu euron gurarioi.

Guadalajara'ko guda oiñetan italiaŕ gudarostea'k aŕtu dauan agiñetakoa, be, pozgaŕi yakoe Rusia'ko politikuei.

España'n Rusia'tik igoŕita ango izpaŕingiak dabezan izpaŕlarien idazlanak gogotsu irakupten dabez.

Eŕi-aldezleak orduko 300 miloi bide egiteko gai diran egazkiñaz gaiñera, suagaketarako egazkin arin berezlak, be, ba-ei-dabez. Egazkin oŕeik amabost edo ogei suaga eruan daikez ta orduko 300 mila-bide egin.

Egazkiñei eskeŕak, non dautse italiaŕoi ostikada oro Guadalajara'n.

ABISINIAŔAK ESPAÑA'RA

Alejandria.—Port Said'etik il onen 26'gn. aŕatsaldeko iruretan españaŕ paxisten "Domine" itxasontzia atera ei zan. Ontziol Djdah eta Arabia'tik ei et eta Franco'ren alde gudatzera an laureun abisiniaŕ ei dakarz.

Ceuta'ra eruango dabez abisiniaŕok eta gero Ceuta'tik España'ko paxisten porturen batera. Messaur eta Somalia' ko portuetan be, egon ei da itxasontzioi ta 17 "peregrina", be, ei dakarz iñork zeŕ dakaŕen igaŕi ez dagion etŕ bidaria beteta duan itxasontzi etsi dagien.

OLAKO EMAKUME ZITALIK!

Paris.—Emakume batek Frantzia'ko Ordezkaŕi Italia'n izan zan De Chambrum zauritu dau suizkiŕu labuŕ batekin.

Emakume oŕi izpaŕlaria da ta Mussolini'kin jardunaldi be egin ei dauz ta agintaŕi jatoŕ esten dau.

Italiaŕ adizkide bat izan ei eban emakume oŕek eta De Chambrum'ek galdu ei eutson lagunoi. Jaun oŕi eraŕi ez dabelako itun dago. Olako trastaŕik oŕi da!

OSTIKOKETA

"Euzkadi" egazkin-alde

EUZKO-EKINTZA KOAK'ETA EUZKO-GUDAROSTEA'KOAK

Biaŕ, San Mames'en

Biaŕ, aŕatsaldeko laurak laurden gutxiagotan, San Mames'en zer izango degun noŕk ez daki? Amaikako'teak iragaŕita ditugu. Langara, Iraragoŕi, Mugertza, Areso, Blasco ta Unamuno'ren izenak entzutzeak bakaŕik ao gaxotan utzi gaitu. Eta, ez da gutxiagotarako. Ikusleok ba degu gogo.

Irabazleak eta galtzaileak, biaŕ dute saria. Bai, egia da; izerdiaren ondoren nai litzake zerbait, baiña, baten bat ez ote gero gutxiegi nekatuko? Ixo, Ixo! Ez asaŕetu mutilak! Merezi dezute ta ondo merezi ere. Nik joko dizkitzuten txaloak...

卐 卐 卐

Saŕerak salgai:

Bar Patxo, bar Azul, bar Gran Vía, Azkaŕeta, Euzko-Etxea, Euzko-Gastedi ta Sabin-Etxea'n.

BLASCO,
Euzko-Gudarozteko atezaña.

Euzkalduna

Pelota

Palazeta eŕemontez

Pelotazaleok biar-goizez ere "amaiketako" ederá degu. Igande-goizok Euskalduna pelota-tokian "goxo" ez ba-dira.

Ona emen eskuratu diguten egitaraua:

Palaz: Oŕantia ta Pasai, Pruden, Somoŕostro ta Fuentes irukotearen aurka.

Eŕemontez: Rodriguez eta IIgn. Abrego, Laŕañaga, Gurutzeaga ta Amenabaŕ'en auŕez-auŕe.

Abrego'k atzetik jokatuko du, atzelari, baiña, pelota ateratzea, sakea, bere kontu izango da.

BIAR, Mungia'n

ESKUZ

GIZARTE-LAGUNTZA ALDE

Betikoa. Pelotaririk bikaiñenak Mungia'n biar ere. Eskuratu diguten egi-

Bata

tarauak badu mami. Bai orixe!. Onaindia ta Ubila I ikusteaŕen...

Lenengo jokaldia:

Ubila I-Kortabitarte ta Onaindia I-Urzelai'ren lepo.

Bigaŕena:

Aŕien - Aboitiz, Zabaleta - Etxaniz I'goaren, aurka.

Mungia'k du oraingoan aldi.

TARTEKA MARTEKA

Matxiñadea dala-ta "Izvestia"ren jardunak. Eriotzarako epai bat.-Egoaldeko guda-oñetan.-Italiaŕak españaratzen.-Beste izpaŕak.

"IZVESTIA" INGLATEŔA'KO GIZON URTENENEKIN BAŔIKETAN MATXIÑADEARI BURUZ

Moscu.—España'ko matxiñadeari buruz "Izvestia" izpaŕingiko izparlari batek Cambridge'ko Ikastola Nagusi'ko mister Holden irakasleakaz jardun bat izan eiclau ta irakasle oŕek auxe esan eutso:

"Bake-zale naz ta bake-alde danok zerbait egin bear genduke. Baiña "ez sartze" ori baŕegaŕikeri barik España'ko Erkala eraij nai izatea da.

Londres'ko Ikastola Nagusi'ko mister Blackite irakasleak beroi Valencia'ko Gobernua'ren aldeko dala adieraso dau ta Gobernu oŕeri laguntzeko alegiñak egingo dabezala.

Williams Ellis idazkari, be, Valencia'ko Gobernua ondo deritxo. Eŕi-Osasun arduradun izan zan Mr. Addison jaunaren aburuz Gobernu jatoŕari iŕi egite ori amaitu beaŕa da. Rusia'k iŕi egite ori eragotzi ba-daike, gizartea zordun egiten yake.

"Dei au bastaŕ guztietaragiño edatuko dala ta bastaŕ guztiak lagunduko dautsela España'ko Erkala'ri uste dot nik" adierazo dau lord Hastings'ek.

Lateŕien arteko gora-berok astertuaz "Izvestia"'k auxe diño:

"España'ko Erkaldaŕ Gobernua'ren agiriak azaldu dabenez italiaŕ gudarosteak Guadalajara aldean egin dauan joaldia ikusirik, ez sartzeko asmo ta erabagiak alpeŕeko dirala esan daikegu.

Jokera oŕen bidez paxista lateŕiak España ondatuaz, Europa'ko bakea apurtu agiñean ipiñi dabe.

Gudarako gertetaka dagoan Lateŕia menperatu nai daben paxista ankeŕon aurka jokatu beaŕean dagoz munduko jakitun ta jakintz-zale guztiak.

Lord Hastings'ek esan dauanez españaŕ erkaldaŕak laguntza bidez eskatu daike, paxista oŕein aurka jokatuaz, gizartearen eta munduko bakearen alde jokatzen dabe ta."

ERIOTZARAKO EPAITU DABE

Gijon.—Izpiazgoan ibili dala ta salatu daben Manuel Boves Muñiz'en auzia izan zan atzo Gijon'go Eŕikoi-Epaitegia'n.

Auzipetuoi izpiazkoan ibili zana argi ta garbi azaldu eben salatariak eta Epaikariak eriotzarako epaitu dabe.

EGOALDEKO GUDA-OÑETAN

Andujar.—Orain amabost egun asi eben gudaketeak ba daŕai Pozoblanco inguruetan. Guda-joaldi zakaŕak dabez.

Paxistok guda-tresnaz ondo orniduta dagoz ta guda burdi ta belbiletan alemandaŕak eta moruak dabiltz.

Erkaldaŕ egazkiñak egoki lan egiten dabe 'guda-oñ'in oŕeitan. Paxista gudari-taldeak banantzen naiko zeregin dabe egazkiñok eta bete, be, egiten dabez euron eginkizunak.

Atzo goizean iru joaldi asi ebezan paxistok. Alkaŕekin soiñez-soin, be, buŕukatu dabe.

Guda joaldiok Pozoblanco'n, Belmez'en, Peñarroya'n, Alcarracejo'n eta Espiel'en izan dira.

Pozoblanco inguratu nai dabe kosta alak-kosta. Eurite aundiak dira gaiñera ta joaldiok latzago egiten dauz euriak.

ITALIAŔAK ESPAÑA'RATZEN

Londres.—"Manchester Guardian" izpaŕingiko lateŕi-artuemon autu-idazleak italiaŕak España'ratzeari buruz diñardu ta bateŕ, be, (kontrola-ezartea erabagi zan ezkero etoŕi diran italiaŕ gudari-taldeen baŕi emoten dau.

Kontrola ezartea erabagi ezkero, otsailaren 28'gn. eta epailaren 5'gn. italiaŕak España'ratzerik ezin iñork onartu daike diño idazle oŕek.

Gudari talde oŕeik Italia'tik ez dirala etoŕi esatea alpeŕik da, Libia ta Abisinia, be, Italia'renak dira ta.

Egia esan Guadalaja'ran ostikada zakaŕa artu dabe.

Zenbaketa batek darakuskunez matxiñada onetan 250.000 baiño geiago il ei -dira.

IZPAŔINGI BATEN AURKA

San Jose de Costa Rica.—Uriburu onetan dagon italiaŕ Ordezkariak Costa Rica'ko Gobernua'ri "Amerika lataŕe" guztian saltzen dau Costa Rica'ko asteroko baten zuzendari Francisco Marin zigortu dagiala eskatu dautso.

"Abisinia Blanca" izenpurudun idazlan baten asteroko oŕetan, Abisinia deuseztu eben italiaŕak orain España biŕintzen diñarduela adierazoten da. Idazlan orixe dala-ta eskatu dau zigoŕoi italiaŕ Ordezkariak.

Costa Rica'ko izpaŕingi-agindauak euren adizkide dan Lateŕi edo Estadu baten aurka jardutea gebendu egiten dautse izpaŕingiai. Orain izpaŕingi oŕen autuoi epaikariengana eruango dabe.

Erdera egiten dau Amerika'ko saíletan auzi oŕek esames asko soŕtuko dauz.

BAKEA BURUAN ETA BIOTZEAN

Roma.—Roma'tik Berlin'era egingo daben bitxabaj zabal bereziari buruz diñardue izpaŕingi guztiak.

Bitxabal-gintza ori gudaketarako asmoz egiten ei-dabe baiña; bitxabal oŕetan kañoi astun, tanke, guda-burdi ta abar ibili eŕaikez.

1.400 kilometro luze ta 16 metro zabal izango ei-da.

Oyaneder

Soladrero

ASTE SANTURAKO

EUKARIST gurtzalliei

Eguen Santu gabaz Eukaristia'ri gaubelea egin nai dautsoen gurtzailak, iragarten doguzan edozein eleizatan egin daike. Oŕetarako baiña "baimen berezia beaŕ-beaŕeko" yakoe ta baimen berezioi Eleiza bakotxerako izentatu dan Zuzendariak emongo dautsoe.

Zuzendari oŕeik oneitxek doguz:

Jagoba Deuna'ren Eleiza'rako, Bilbao'taŕ Gotzon jauna, Santa Maria-kalean, 13, 15.512 uŕutizkiña.

Andoni Deuna'koa, Soloaga'taŕ Toma jauna, Ronda kalean, 14, 3'gn. 15.522 uŕutizkiña.

Jon Deune'takoa, Tejada'taŕ Sandali jauna, Banco de España-kalean, 1. 10.112 uŕutizkiña.

Nikola Deuna'koa, Zubiri'taŕ Bingen jauna, Artekale'n, 50'gn. 13.262 uŕutizkiña.

Bingen Deuna'koa, Aizpuru'taŕ Iñaki jauna, San Vicente kalean, 5'gn., 6'na. 11.007 uŕutizkiña.

Asis'taŕ Pantzezka Deuna'koa, Iruŕita'taŕ Karmel jauna, Alameda de Urkixo kalean, 20'gn., 16.302 uŕutizkiña.

Karmen'go Ama'ren eleizakoa, Ibebe'taŕ Joseba jauna, Garcia Rivero kalean, 10'gn., 14.343 uŕutizkiña.

Josu'ren Biotza'ren eleiza'koa, G. Zaŕaga'taŕ Burna jauna, Lutxana kalean, 1, 13.725 uŕutizkiña.

Sendi Deuna'ren eleizakoa, Gorostiaga'taŕ Jon jauna, Ituŕibide, 12, 2'n.

EZKONDUKO ETE?

Inglateŕa'ko eŕege izan zanak eztaki ezer

Londres.—Simpson eta bere emazteak dibortzioa dala ta aŕtu biaŕ daben epai baŕiak ikara andia sortu dau Inglateŕa'n.

Inglateŕa'ko legeak beteteko dibortzio auzia lenengo sei ilabeterako erabagiten da eta gero baŕiro aztertu beaŕ da betiko emoteko.

Eŕekursua ontzat aŕtzen da bat eŕudun agertzen ba'da.

Eŕekursu ori baña agintari berezi batek egin beaŕ izaten dau, "Kings Prokter" deritxo agintari oŕi.

Eŕekursua epaikariak ontzat aŕtzekotan Simpson anderea ezingo litzake ezkondu Inglateŕa'ko eŕegea izan zanagaz.

Kaleko marmaŕa

EUSKALERRI ZARREKO GUDARIA...

Gudari bat dizuet kanta-gai. Eŕiko gudari bat. Euskaleŕi zaŕeko gudari bat. Beronengan, eŕi-gudari asko ta asko da kusazt.

Kanta gai baitda Euskaleŕi zaŕeko gudaria.

Eŕi gudariarengan ez oŕaatik aundinaikeri-aztaŕenik bilatu. Apaltasuna dario. Usai-gozo liluragaŕia darion apaltasuna.

Egintza aŕigaŕienak bearkunaren seme deritzazkio. Aŕokeri-ispilurik ez bilatu bere bekokian. Gutxiago uŕe dizdairik. ¡Eŕikoa baitda! Alare, eusko gudariaren gogoak darion argiak, itxi erazi dezake uŕearen dizdirak baño areago zure begia.

Bijoakik iri, Euskaleŕi zaŕeko gudari biotz zabal, gudari leñargi ori, anai baten laztan estua.

Zueri bainago azkatasunaren gudariel.

卐 卐 卐

Marmarka ari dira ostoak zugaitz-adaŕetan. Suzko geziak dijoazkio eguzkiari. Mila xomoŕo mueten kantak ud-abestia osatzen dizute

Eta ostoak marmarka, eta eguzkia gezi jario, eta xomoŕoak kantari, eta eŕekatxoak izketa goxoan uda abesti paregabe-

Sánchez Arana

koa dijoa zerutik luŕera. Gizonok, eskeŕ-onak eraginda, Goiko-Jaunaren aintzaz abesiu oi degunean bezelaxe.

Ots! Kezkaren zimuŕa dagerte oŕaatik bekokiak. Amen bekokiak batez ere...

Esakuntza auxe darabilte gizonak ezpaiñez-ezpain:

—¡Napaŕak datoz! Napaŕak datoz su ta gar...

Esakuntza onek zerion laŕiak dardartu erazi zuan Nabaŕa inguruko eŕi-buru bat.

Eta olaxe ziritu zan guda...

卐 卐 卐

Uda abestitan ari zan izadi osoa. Bein bitartean, eŕiak, kaleak, etxeak eta soroak odolez goŕitze miñez zetozten eŕiaren betiko arerioak.

¿Nork ikusi uda-erditze zoragaŕi artan gudaren mamorua?

Eta alere, Garagaŕil zoritxaŕeko artantxe ziritu zan guda...

Euzkaleŕi zaŕaren izakera goikoz bera aldatu erazi zuen guda; ezpata dantzari alaia gudari-kopetilun biurtu erazi zuan guda; txistu-soñua guda turuta biurtu erazi zan guda; langileari, pakea esan nai duan lan eŕemintа utzi erazi zion guda; baseŕitaŕari, pake-usaia darion goldea utzi erazi zion guda...

卐 卐 卐

Ezin egona. Laŕia. Kirio-dantza.

—¡Napaŕak datoz! Napaŕak datoz su ta gar...

Ezin egonaren eta laŕiaren itxaso ilunean badira oŕaatik itxaropen oiuak:

—¡Eup, motelak! ¡Gora biotzak! Ez gatxoztek menderatzen.

Izkiludun taldeak batetik bestera. Zentzu galtzea nonai. Arpegi iluntzea. Biotz gogoŕtzea. Giza-odol egaŕia...

Izan ere, ¿nola adierazi ordu aietako eŕiaren miña, lanean ari zalarik eriotz bidean bere burua ikusi zuan eŕiaren miña?

卐 卐 卐

Nabaŕa inguruko eŕi bat Konsejupea gal gal dago. Jendez gal-gal. Irakin dirakin ari dan eltze baten antzera.

Mendiruntz abitu beaŕa omen da. Nabaŕa'ko mendietan azaldu diran txapel-goŕiei arpegi eman bear omen zaie. Eta mundu guzia itzlari, eta mundu guzia agintari, eta mundu guzia zerbait egin naiez... olaxe sortu zan Nabaŕa'ko mendietara lenengoetako abiatu zan taldea. Bota iltzedunaz batzuk, espartziñaz besteak, eta Nabaŕa'ko mendiak baŕena izkilu onez ornituturik zatoztenei arpegi emateko, izkilu-motxak eskuetan, eizeko eskopetak, aiztoak...

Ain zuzen ere, ausarta pila ark naikoa zerizkion gogaiaren indaŕa eŕiaren aurka jaŕi ziranak menderatzeko.

Eta egun artantxe goŕitu zuan eusko-luŕa oparo asko euskoan odolak...

卐 卐 卐

Nabaŕa alderuntz abiatu zan lenengo talde artan mutiko bat zijoan. ¿Zer da mutikoa ezik 17 urtedun gazte bat? Txinparta zijoazkion begietatik. Sua zerion aren soiñak. Bat batean gizondu zan aren arpegia. Etzenuten beregan aztaŕen bat arkitzen. Gogaiaren izkutuko indaŕak gizondua zedukan.

Mendian zalarik lagunaren soiñetik odola barbarka ikusi, eta etzan dar dar izan. Bai baizekin odol aren saneuŕia azkatasuna zala, eŕiaren garaitza zala.

Oar ordea, bein bitartean, gurasoak bila dabilzkio mutiko ausartari.

Izan ere, mutiko ark etxetik igez egin zuan.

Etxea utzi... mendira... gudara.

卐 卐 卐

Auŕera ta auŕera datoz txapel-goŕiak. Ezin iñondik iñora aiei esi bat ipiñi.

Lege guziak ausi dituzte asaldariak. Lapuŕarena egin dute.

Eta alare, Garagaŕil-erdiko eguzkia zeruan ezkutatu ez.

Aidoso datoz asaldariak. Izkiluduna ezin ba ukabilka menderatu...

Nabaŕa inguruko eŕia ustu beaŕa da. Mendira lenengoetako taldean joan zan mutila, mutikoa, Gilbaŕa'ra daramate gurasoak. Gudarik ikusi ez dezan...

¡Aren oñazea! Al zuana egin gabe eŕi maitea utzi bear...

卐 卐 卐

Nabaŕa inguruko eŕi artako Konsejupean bezelaxe, Loiola'ko gudari etxean azaldu zan egun batez gure mutikoa. L-

Larrínaga
San Mamés'en
IGANDEAN, 21

nengoz bezin adoretsu, lenengoz bezin kementsu. Aideen agintea ez izaki gurasoena bezain zoŕotza...

...Etziran lau ilabete joan...

Araba'ko luŕaldean mutikoa gorputz zegoan.

Araba'ko luŕaldeak irentsi zuan bere gorutz edeŕa.

Amazazpi urtedun mutikoa... ¡gizona bezela il-zan!

UZTUŔE

MADRID'EN

Ciudad Universitaria'ko ekiñaldiak

Madrid.—Ciudad Universitaria'ko guda oiñetan jaiki-aldi aundia izan zan atzokoan. Goizabaŕean, ekin zioten, ekin, erkaldaŕak eta urduri ta laŕi lotu zan arerioa.

Igazitako astean ere, Hospital Clínico inguruetan minak jartzen, etengabean jardun zuten eŕiko gudari jatoŕak.

Goizeko zaspirak inguruan, guztia gertu zanean, lenengo jaŕitako mizari lertegin zioten erkaldaŕok. Auraxe zan minarik indartsuena ta leŕ-otsa uŕutitik entzun zan.

Paxistaŕak gogortzen jardun zuten Hospital Clínico'ko orma batzuk zatituta geldi ziran eta etxea zulo aundiz josita.

Geroxeago lenengokoa baiño bi leŕ-ots entzun ziran. Hospital-inguruetakoak ziran onek ere.

Asaldariai ezertarako astirik eman baño len, erkaldaŕak erasoka ta auŕeraka asi ziran eta Escuela de Arquitectura ta Asilo de Santa Cristina ondoraiño eldu.

Aŕatsaldean ere jo ta su jardun zuten gudariok eta paxistaŕak geroago ta laŕiago.

ANDIK ETA EMENDIK

Rusia ta Inglateŕa artu-emonetan.-Zita eŕegin izan zana zaurituta.-Illak eta zaurituak miña baten.-Franco'ren estutasunak.

FRANCO TA LAGUNAK ORAIN GUADALAJARA-ALDERA

Buenos Aires. — Salamanca'ko izpaŕak diotenez, italiaŕak Guadalajara'n izan duten zuŕa ondoren, estu ta laŕi dira españaŕ paxistaŕ gudalburuak.

Zuŕa oŕek estu laŕi utzi dituztena argi ta garbi azaldu du Franco, Mola, Yagüe ta Moscardo buruzagien urduritasunak. Orain daiñokoan italiaŕak egiten zuten guda-oin ortan guztia, baiña, orain, euren buruak estu ta laŕi ikusi dituztenean paxistaŕ buruzagiok joan dira Guadalajara ingurura.

Ezin esan baietzik baiña, italiaŕ gudaburuk laketzen ba'diote, Franco'k guztia bere buruz zuzentzeko asmoak ditu.

Ikusiko degu espaiñaŕok bizaŕik ote dezuten.

HITLER'EN KATOLIKOTASUNA (?)

Vaticano.—Vaticano'ko izpaŕingi "L'Osservatore Romano"'k idazlan jakingaŕi bat argitaldu dau. Idazlan oŕetan Alemania'k Roma'kin uskurtz autuak erabagiteko eginda eukan itunbena ausi egin dabela oŕtera, be, adierasoten da.

Gabonak-ezkero Baviera'n nazitaŕ agintariok 150 katoliko ikastola itxi ei dabez.

Olako oŕei besotik elduta, nazitaŕ ankeŕ oŕekin burua bat eginda dabiltzan españaŕ paxistak erlejiñoiaŕen dabiltzala esango dabe gero.

Eta erlejiñua eurok bakaŕik aldeztu ezin ausago ta españaŕ katolikuak oŕen laŕi ikusi dabezanean, Hitler katolikoa (?) eŕukitu egin yakoe ta bere gudari zantaŕ zikiñak bialdu dautsez.

Amaikatxo buru arin ba-dago! Paxistok erlejiñoiaren alde dabiltzala uste dabe... munduko ustel guztiakin batuta dabiltzanaŕen...

GIZARTE-LAGUNTZA

Estokolmo.—Españaŕ erkaldaŕai lagundu oi dion Batzordeak oraingoan ere osalari-talde bat bialdu du. Talde oni, España'ko ordezkari Palenzia'taŕ Isabel'en buru zala, aguŕik bero ta xamuŕena egin zioten.

Ostetza aundia batu zan aguŕ ortara; langile ta jakitun, guztietakoak ziran aguŕtzile. Itzaldi xamuŕak ugari izan ziran.

Batzorde oŕek bost miloi laurleko batuak ditu ta soiñeko ta jatekoak ere ugari bialdu ditu.

Españaŕ erkaldaŕai laguntzeko, arpideak egunero ta mardulago dira.

DEGRELLE'RI AŔIKA

Bruselas.—Berchem'en egin daben mitin batera zauritu egin ei dabe Degrelle aŕoskoa. Izketan ziarduala norbaitek edontzi bat jaurti ei-eutson eta buruan jo.

Dilbek'en egin daben beste mitin baten, be, norbaitek eŕegairen bat jaurti ei eutson eta eŕegai tantaren batek arpegian eŕe-unetxoa egin ei-dautso.

ZITA EŔEGIÑA IZANDAKOA ZAURITUTA

Bruselas.—Zita eŕegiña izandakoa eruan belbilak gaiñezko jira egin eban eta Zita'ri jausi zanean sorbaldako azuŕtxoa apuŕtu yakon.

Otto eŕegegaiari ezer ez yakon egin, ori, be, jausi zan baina.

ILAK ETA ZAURITUAK MIÑA BATEN

Tokio.—Sukuako'ko miña baten lergai batek leŕ egin eban eta zazpi il ziran eta ogei zauritu; ogei zaurituon artean zortzi txaŕto be, txaŕto dagoz.

RUSIA TA INGLATEŔA AŔTU EMONETAN

Londres.—Rusia'k ta Inglateŕa'k gudontzi autuak astertzen jardun dabe ta beste arazoko batzuk astertutakoan itunben bat izenpetuko dabe.

ERTI-LAN ERAKUSKETEA

Paris.—Erdiaroko Catalunya'ko Erti-lan Erakusketea arañegun eregi eben. Erakusketa ori Generalitat'en eta Paris'ko españaŕ ordezkariaren laguntzaz asi da.

Askunde oŕetan Prantzia'ko iru ministro be, izan ziran. España'ko ordezkaria, Ordezkaritza'ko agintari ta arduradunak, Ventura Gassols ta beste jakitun batzuk be, Erakusketa Askundea oŕetan ba-ziran.

Askundeoi ospe aundiagaz egin dabe. Erti-asterle asko izan ziran eta izpaŕingiak jaioi asko geratu dabe.

JARDUNAK

LOYOLA SAILDIA TA GERNIKA'KO KARLISTAK

Loiola saildiak bere gudetxea (kuartela) Gernika'n dauka. Saildi ori gipuzkoaŕ gudariz osotua dago. Eskuko beatzakin zenbatzen diranak izan ezik gipuzkoaŕak bai'dira. Esan beaŕik ez degu gipuzkoaŕok sendi askotan beintzat ondo aŕtuak izan gerala. Beste batzutan ordea auŕetik ondo itzegin, kontuak jakin ta gero fatxisteri jakin erazi.

Mendian egonaldia eginda gudariak kaleratzen ziranean oso mutil onak giran gipuzkoaŕak.

Fatxisten gurenda naiko luteken dendari, akeit-etxe jabe ta gañerako kapitalistak gudarien txindiaz, gudariak nai ta naiez beaŕ zituzten jantzi, eŕopa, alkondara, galtzerdi ta abaŕi geigizko saneuŕiak ezaŕiaz euren sakelak bete ta gizentzen bai zituzten. Oŕetzaz gañera azpilanean zebiltzenak gudariei nun egoten ziran, nola egon, zein tokitan itz batean gudate aldian ixilik euki bear diran izpaŕak ateratzen alegintzen ziran. Eta gudari batzuk zirikatzaileen oldozkiñen, beŕi, etzekitelako, mingañetik tiraka ziarduenen gogaiak, fatxista aldezkoak zirala etzekitelako ixildu beaŕ ziran gauz asko esaten zieten. Era oŕetara Loiola'ko mutilak gernikaŕ karlataŕentzako ere, gu azpiratzea nai dutenen oientzako ere oso mutil jatoŕak ziran. Batetik mutil oien bizkaŕ, bizia aŕixkatuz gudariak irabazten zuten txindiaz, euren sakelak gizentzen zituztelako. Bestetik beŕiz guk gurenda loŕtu ez dezagun beŕiak arerioari euren adizkideari jakin erazteko era izaten zutelako. Geiago gañera gernikaŕ karlataŕak gudan gaudela aztuta, begirapen geiegia zitzaietela aztuta, gudarien aŕtean, eŕiaren aŕtean etsitasuna (pesimismoa) nagusitzeaŕen beŕi txaŕak zabaltzeari, berak asmatzen zituzten gezuŕ kaltegaŕiak baŕeiatzeari saŕitan ekiten zieten, atze-leŕoetan (retaguardia) geroago ta gureago dakusgun gurenda lañotzeko.

Ordea Eŕi-Zaintza zaingoko burukideak eta bere menpean dauden otseñak fatxista gogaidun, lan kaltegaŕia zegiten oien uŕats edo pausoak zaitzen zitun. Eta gertatu da; gaizki dabilena' gaizki bukatu. Txoriak jausi dira Lengo egun baten ainbat "detenitu" zituzten.

Orain gertatutako guzien eŕua Loiola saildiak du. Len mutil onak ziranak gauŕ inpernutaŕak dira. Begi onez begiratuak ziranak begi ziarka begiratuak dira. Len etxean nai zituztenak orain aneika leguaz uŕuti izatea nai dute.

Loiola saildia ez da ikaratuko eŕu guzia berari eraman aŕen ere. Gañera gertatu danaren eŕua ez da saildi oŕena. Ixilik egon beaŕ zutenak ixilik egon ba'ziran etzitzaieten ezer gertatuko. Eurena bakaŕ-bakaŕik da ba karlataŕen espetxeratze eŕua. Zuzentza berak orixe egitera beartzen zun. Eŕurik ez duna azkatuko dute. Eŕua duenak beŕiz lege zigoŕaz zigortatua izango da. Ez bai'dago eskubiderik gudoñean igarotako aŕixku ondoren atsedena artzera dijoazenen bizkaŕ auŕetik ondo itzegiñaz, atzetik beren galpena beren ondamen bila ibiltzea. Ta gauŕkoz amaitzen det gaizki dabilena eroriko, dala esanaz?

OTARMI.

Otxandiano.

Españar gudako izpařak-eta

Italiařei aspaldiko lepokorik andiena emon eutsen Brihuega'n

Alegiñak-alegin italiařak ezin izan eben eři ori zaindu eta aldeztu ta igesari emon eutsen, arma, su-gai, gizon eta ag'ntari ugari bidean laga-ta.-Eřepublikařak Brihuega'tik amar kilometro auřeratu. - Beste izpařak.

PAXISTOK EUREN GUDARIAK EPELDU TA ADOREKATU ORDUKO EKIN

Madrid. — Egubenez eři-aldezleak suř ta bulartsu jokatu eben.

Paxistok gertetan eta ekiteko guda-ři-taldeak eralduten jarđun dabe. Ba ekien eři-aldezleak eta egazkiñen eta kañoia suagaketak-bide euren asmuok beteten ez eutsen laketu.

Erkaldařok jo batetik eta jo bestetik eřitxuak menderatuaz uazan.

Len galdu ebezenak lortzeko gertu ta adoretsu egozan.

Eři-aldezleen ziřiak minberatuta, euren gudariak epeldu ta adorekatu orduko ekitea erabagi eben paxistok. Guđa-gaiz ta guda-tresnaz guztiz ornituta joaldia asi eben.

Ondo gerteteka astea galbide izan yakoe paxistoi. Guda-joaldioi bizi-bizia izan zan eta eguardi arte jařaitu eben alkař-joka. Eguardi-aldean paxistok inderkatzen asi ziran.

PAXISTOK ATZERAKA

Ařatsalde erdiruntz paxistok gizon asko ta guda-gai ugari galđu ebela ikusirik atzeraka asi ziran. Eřitxoak joaldi zořotzak egin ondoren eři-aldezleen mende jausaz uazan.

Iluntzerako Brihuega'ko gaiñak artu ebezan eři-aldezleak eta orduko uri ori suagatu-suagatu egin eben erkaldar egazkiñak.

Egazkiñok paxista atze-alđeak suagatuaz, guda-tokietan eguazanak ornitzen eta gudariak ara bialtzen ez eutsen laketu egazkiñok.

Iluntzen asi zanean Brihuega ondoan egundoko bařukarik gogořena zan. Italiař guđariak aldeztu nai izan eben uri ori, baiña ezin ei-kiuen eutsi erkaldařen joaldiari.

Talde batzuk batez, be, eleizan egozan gudariak eutsi egiten eutsen, eři-aldezleei uribařuan. Eři-aldezleak baiña, jo ta auřera egiten eben eta ordun biren buruan eurondu eben urioi.

Goizalđeko lenengo orduetan erkaldařen ikuřiña agiri zan Brihuega'ko etxe aundi guztietan.

Auřera jařaitu eben eři-aldezleak eta paxistak guztiz adorekatuta ipitika igesi uaren. Brihuega igaro ta bederatzi kilometro auřeratu ziran eři-aldezleok. Auřera uazan eta Agintariak agindu eutsen geratzeko.

Espe asko artu dabez, batez, be, beza-zulo ta etxe bitarteetan. Kañoitan eta ametraładoretan, be, asko jausi dira erkaldařen eskuetan.

Italiař guda-belbilez ornidutako gudari-talde mardul bat, dauseztu egin đabe. Irureundik gora espe artu dabez; geienok italiařak dira, ořein artean ba-da italiař teniente-koronel bat, be. Agiri gařantzitsuak idoro dautsez agintari ořeri.

Amakatxu gorpu laga dabe bidean eta zelaian italiařok. Zortzi kañoi artu dabez eři-aldezleak. Baita munizioz beteriko iru belbil aundi, be, ta suizkilubizkořetan eta pusiletan asko. Oindiñokařen ez dabez danak batu.

Goizaldez, be, auřera egin đabe ta Hita inguruan bukukatzen dira orain. Or, be, onezkero guda-tokiren batzuk artu izango dabez.

Sorkaldetik paxistok ez dabe auřerakadarik egin eta paxista iřatiak Cifuentes artu ebela diñuenařen ori guzura da, Miaja besterak guzurpetu dau.

Jarama aldean, be, egon dira joaldi batzuk baiña Guađalajara'koen ondoan ořeik ezer ez dira.

Parque del Oeste'n eta Puente de los Franceses izan dira bukukaldi batzuk. Ciudad Universitaria'n paxistak dabezan etxeak apurtzen diñardue erkaldařak.

Etxeok miñen-bideʐ apurtuaz ařañegun Asilo de Santa Cristina'ko ta Escuela de Agricultura'ko sailak eurondu ebezan eři-aldezleak.

BRIHUEGA'KO JOALDI GURENDATSUA

Madrid.—Goizeko lenen orduetan, Madrid'eko Aldezle Batza'k eřizaleak Brihuega uria artu dabena bayeztu egin dau.

Eguen ařatsaldean eřizaleak auřera eta auřera egiela Guadalajara aldeko guda-oñetan, zabal zan goizeko orduetan. Lau eřitxo eta, guda-arauz leku egoki asko artu zituala.

Ařatsalde erdirako etxe bat artu eben eřizaleak, eta Brihuega osoa bertatik agiri agirian dago. Leku onetatik paxistei egundoko eraso eta oldarketak egin eutsezan erkaldař gudasalak.

Paxistok, estalđu-leku bage geldi ziran, eřizalien artileriak eten bako jardunean ezi eta luban, guda-estaleku ta parapetuak tutařez auzi eutsezan-ta. Trintxerok ariñak arin egiñak zituen paxistak.

Kalte izugařizkoak izan zituen paxistak eta gizon asko galdu. Erkaldařen etengabeko su eta jarduna, izkilazkarez eta kañoiez, jasan eziñik egozan italiařak, eta ařapaladan atze-atzeka asi ziran, zalaparta eta naspilean.

Gau lenean, Brihuega'tik 60 metro ingururaño elduak ziran eřizalien indařak. Auřerakada ikusgaři ura geldi gabe, andik minutu gitxira, Brihuega uria artua euken.

Euren gauzak eta egonlekuak bertan bera laga, eta italiařak igesari emon eutsen.

Españar gobernu eřizalearen gudariak bultzadan ziarduen geroago be, eta gařaitzaldi edeři lortu eben.

Bukukaldi ořek ondoren onik izan dau eurontzat. Italiařak euren azken joaldietan artu zituen lukalde guztia lasteř bařiro artuko dauala gobernu erkaldařaren gudarosteak, esan giñei. Ez ori bakařik; lenago izan daben baño leku egokiago ta uřutiagokoak be, bai, nonbait.

MUNGIA GUADALORUA

Eun ta ogei egun guda-oñetan

Paxistak asaldarijok sořtutako gudea danok uste geban baño geyago irauten zan ta Abeřija'k beren bixitza ta eskubidiak aldeztuteko gudari geyago biařian auřkitu zan. Augaitik beste Gudaloro bat geřtatu zan: Mungia gudaloruą. Atzueta, Txori - Eři, Sancho Eiztegi ta Sabin Atutxa dira gudaloro onetako gudasalak.

Guztiz edeřto ořnidu gindubezan. Soñezko ta oñetakuak ta enparauko gauza bereziak. Izkilubak be edeřak.

Abeřija'k gudari geyago biař ba'ebezan: Ořa oř gaztedija geřturik!

卐 卐 卐

Gaur ixango ba'litz lez gomutetan dot ze poz ta adoretsu urten gintzazan euzko-ikuřiña auřian daruagula. Gudara giñoyazan ta etziran ikusten ařpegi itunak. Egun atan dana ixan zan alaitasuna. Alde guztijetatik abesti abeřkoyak entzuten ziran.

Itxas - eřtzeko guda oñara bidaldu gindubezan ta Lekeitio'n egin dogu geure egon aldija. Eun ta ogei egun Itola, Anakabe eta Asteřika guda oñetan.

Lau ilabete oneitan, era guztijetako aldijak ixan doguz. Gau ilunak, otza, eurija... Eguraldi edeřak be egin dauskuz. Batzubetan berunbi'-txistuba ta kañoyen daundotsa dala-ta, geure estu -aldijak igazi biařean ixan gara. Bestetan egun paketsu ageřtzen zanian, kontu-kontari ta ebestika egoten gintzazan euzkotař ařtian dagokion anaitasunaz.

Geure guda-oñetako txabolak itzegingo ba'lebe!

Lekeitio'n, beřton, be, egin dogus geure atseden alditsubak. Itxaz-eřtzeko uri polit onetan adizkide on-onak eta begikuak egin doguz. Iñoiz aiztuko dogu Lekeitio'tik eruan gebazan oroipen gomutagařijak

卐 卐 卐

Lau ilabete igazi dira. Geure agintarijak etoři gandixala esan dauskube, ta urten gintzazan lekura etoři gara. Alaitasunaz ta abestika juan ta alaitasunaz ta abestika etoři.

Tařanta asko biař ixan dira gudalorua eruateko. Bata bestien atxien bitxabala ziař duaz suge andi bat dirudirik. Belbil guztijetatik euzko-ikuřiñak agiri dira. Gudari guztijen ařpegijan alaitasuna agertzen da; euren espanetatik ebesti abeřkoyak uřteten dira. Noziam bein ujuju bat...

Alaitasuna eřdijan gomuta bat etoři yatan burura, neure gogua itun itun jesařirik. Abestika juan ta abestika etoři, baña ¿juan gintzazan guztijak gentozan? Ez tamalez, Mungia gudalorua'k be ba dauz beren ziñopak. Lekeitio'ko guda oñetan batzuk geratu dira. Itola eta Asteřika euzko-odolaz gořitu da, Antxe jausi ziran Galindez Uřutia, Atxandalabaso, Elořiaga... geuk lez abestika juan ziranak.

卐 卐 卐

Ezkaitezan aiztu Mungia gudaloruak be ziñopak dauzala, ta Jaungoikua'ri Begoña'ko Miren Nexkutza bitařtez eskeřak emoten dautsaguzanian osasuntsu etořigaralako, ezkaitezan aiztu Galindez Uřutia, Atxandalabaso eta Elořiaga gogoakin, irabazi daben betiko atsedena ixan dagijentzat.

OLABEAGATAŘA.

(Atzueta gudasalakua.)

¿Zu beti alper?

¿Ondiño, be, erderazko izpařingia bakařik ařtzen dozu? ¿EGUNA'ri begiratu bez, ikuturik bez? ¿Zelako euzkelduna zara?... ¿Eta euzkerea maite dozula diñozu? ¿EGUNA'ri laguntzen ezpa-'lautzazu zelan biziko da?... Arpidetu zaite. EUZKELDUN IRAKURLE BATZA'n bazkidetu zaite ta ber, bitartez lagundu egiozu EGUNA'ri. Gran Via, 41'gko, 2'gn. bizitzan (17.925, 17.926 ta 17.927'gn. uřutizkiñak) daukozuz bazkidetzeko ta arpidetzeko txartelak. Bertara yo.

Abeřtzalien egi argiak

Gixon bat nuntařa dan ezagutzeko, bere abixen edo apeliduari begitu biař yako: Alan esango dogu, Mendizabal euzkotařa dala, iñoiz itandu barik, zer abeřitan jayua dan.

Lizařaga, Irigoyen, Lařabaster euzkotař jatořak dira, naiz ta Arabia'ko basamartuetan jayuak ixan. Españařak dira eta ixango dira, ludija ludi dan arte Canovas eta Mella: Merry ingelandařa; Mazzarini italiařa; Bulow doiztařa.

Jatořitik datorku abixena, eta beragatik abixenetik esagutzen da abenda edo ařaza.

¡Zela abixena, ala abeřija!

Gertu legike, gixon batek ata franzetařa ta ama, ingalandařa ixatia. ¿nor ixango da gixon ořen abeřija? Seme onek nasturik daukoz bere sanetan odol berdingiak, ařaren aldetik latinař (raza latina) eta bestetik sajonařa (raza sajona).

Ořetara seme onek berak nai daben abeřija bijetatik bat aututzeko eskubidia dauko.

Baña jakiñekua da sorteřija autu-tia, ba, jayotzatik, abeři onen gora-bera eta ixakera gustija, sartzen yakoz bařubenian, bijotzetik mařatubaz.

Euzkotař jatoř batek autu lei bere abeřitzat, edozein berla ukatubaz... baña gixon ori beti ixango da, seme txař eta galdua, bere abeřia eskeřgabez beterik itxi daulako.

¿Zergatik da gertaera samin au? ¡Bere ama ukatu dabelako; ba garbi itxi dogu erabagita, euzkotařa dala izkuntzaz eta odolez! euzkotař uts -utsa, gustijetatik berezija, ořegatik Euzkadi da gure ama jatořa eta matakořa, besterik ez.

Zenbat itxuk esaten dabe, euzkotara españařa dala erbestepian aurkitzen garalako. ¡Guzuř biribila!

Mořoi bat berak naita be ezta ixan gobugazabaren anaya edo senidia, ¡leku onian geldituko litzake beste erara balitz, esaera ori! ¡Mořoyak nagusijaren senidiak, bere menpian bixi diralako...! ¿Euzkotařa, españařa, erbestepian gagozalako?... Euzkotařak giñan azke bixi gintzazanian, 1839'gn. urtera arte; españařak, menpian gaudelako: eta... ¿bařiro azkatuta auřkitzen garanian?... Mirari andijak egin gurarik dabiltza, gure arerijo itxuak, ¡gixon euzkotařa eurak nai daben erara biuřtu-eta ¡itz batekin ganera! ¡Ixildu zateze gixon guzurtijok!

Irakuři egixube beste egi argijau. Felipe II'ga, ata, Carlos I'g. España'ko eta Alemania'ko agindari ixan zan. España'n Carlos eřegia eta alde batera Alemania'ko enperadoria.

Ořa emen abeři bi gixon baten menpian, aginpide osuakaz. ¿Iñungo edezlari edo istoriadorerik auřkitu da, españařa alemanařa dala esan dauanik?

Bayetz esaten daunari, ardura barik esan leyo ¡guzuřti galanta dala!

Orain, euzkotař anayak, ¿Zer opatuko dautsogu, euzkotařa españařa dala esaten dabenari? ¿Galdu dogu, ez abenda edo ařaza, euzkotař jatořirik edo gure euzkera eder mařagařirik? ¿Bai ete da ařazoirik egi aunek ukatzeko? Eta... soruak garala, egi oneik, nun nai, lotsarik barik, esaten dogulako?...

Laga, laga anai jeltzaliak! Urte asko baño lenago eruango ditubez soro -etxetara, euzkotařa españařa dala esaten daben gustijak.

I. T. B.

AZKENENGO IZPARRAK

Mussolini'k eupada bat egin dautse bere eřitařei atzera barik auřera egiteko-ta. - Texas'en izan zan ezpiařaren zertzelada geyago. - Italia'k eztau ordezkaririk bialduko Inglateřa'ko eřege jayetara. - Beste izpařak.

NEGAŘGAŘIZKO EZBEAŘA

Nueva York.—Uri nagusi ontan ezbeař negařgařia gertatu da. Ikastola bateko argi-ariak bide gertatu da. Ariak alkaři ikutu egin zioten eta zirt -zart ikaragařia izan zan ezbeařaren adielazle. Ikastola, zearo ondatu zan. Lurari ziřara gogořa egin zion zartakoak eta uřuti ere uřutitik entzun zan otsa.

Ikasley beteta zegon ikastola eta gajoak lurak azpian artuta eman bear izan zuten bizia. Laisteř ekin zioten lura zabaltzeari baiña, luř-azpikoak, eskuratu zituzteneko, gorputz ziran, ilotz. Gexozain, osalari ta guztiak batu ziran ezbeařa izan zan lekura, baiña, ez zan negařa ta ondamendia baiña lortu. Orain artekoan 540 ume atera dituzte lurpetik, ilotzik guztiak. Oraindio baiña asko ta asko dira lurařen sabelean. Ezbeařik negařgařienetakoa izan da oraingo au.

LUDIARI BIRA EMATEN

Nueva York.—Amelia Earhart egazkinlari ospetsuak ludiari bira ematea-ri ekin dio. Eguretan Honolulu'n (Hawai ugartean) arkitzen da. Egualdiaren txařa bide du egon-aldi.

AMAIKA IŘI TA NARDA EGINDAKO ITALIA

London.—Inglateřa'ko Jaurlaritzak España'koak bialdutako idazki-agiria azterizen diarđu.

Agiri ořek dionez, otsaila'ko 20'guetik, auřera ere Italia'k gudariak España'ratzen jařaitu du. Gařantzi ta ardura aundia eman dio Gobernuak agiriari. Beař dan arauz aztertuko duala agindu du eta zigořa erabili beař bađa, zigořa erabiliko duala. Eta agiriak diona egiztatzen bada, italiari lotsa ere bai atera (lotsarik baldin badu). Ori ez dala emandako itza betetzea. Arau ta lege guztiai, "ez-sartzeko" leloai iři ta narda egitea da ori.

ITALIA'K EZ DU BIALDUKO ORDEZKARIRIK VI'GN. JORGE'REN BUREZKUNDE JAIETARA

London.—London'en dagon italiař embajadore Grandi jaunak, Inglateřa'ko bakaldunaren burezkunde-jaietan italiař ordezkari berezirik ez dala izango, iragaři du agintza bidez.

OPOŘA TA NASTEA, DANA BAT

Michigan (Estados Unidos).—Chrysler belbil-oletako langile guztiak atxilotzeko agindua eman du epaikari bereziak. 6.000 langile dira guztiak. Zaratu ugari izango đan ustea dago. Agintari ta langile artean bai beiñepein naiko ařese. Izkilua ugari dute langileak eta bero-bero bařuak.

MUSSOLINI EUPADAKA

Madrid.—Egunotan Brihuega aldian italiařak izan dituen galtzeak asko itzaldu dabe Mussolini. Gudariak biztuteko, baña, eupada luze bat egin dautse italiař gudariei atzera barik auřera egiteko-ta areriọa zapaldu arterano.

Italia'ko sukalde - basteřetan bada negařik

Zeintzu asmo ditu Mussolini'k?

Guadalajara.—Artigas Arpon aldun edo Soria'ko diputadua Guadalajara-inguruetako guda-oiñetatik zear ibili da ta an ikusi ta somatu duanaren beři eman. Giro edeř dute inguruotan Eřkal.aldez guda-ikilua eskuratu dutenak. Giro edeř eta gurenda-'zpiak argi.

Guadalajara inguruan italiař talde edeřik bai ei dute paxistařak, guda-gai pila galantik ere bai ara eramanda. Zerbait bada agertu nai du areriok, badirala talde edeř eta badutela guda-gai.

Italia'k aundi ta altsu agertu nai izan du bere burua, baiña Mussolini gajoa! Guadalajarako basteřetan, arnas gabe, ilotzik, ilda datzaten italiař gaste lerdenak, atzipenez, engaiñuz, gudateratutako italiař gudariak itz balegite, "ducea"k ez luke ain ařo kukuřukurik egingo eta ez luke ain nabarmenkiro jokatuko. Guadalajara-inguruetako luřak italiařen odolez gořituta daude, eta an, Italia'n, Italia'ko sukalde basteř askotan, bein betiko galdu zuan semearen oroi-miñez negař-malkoz amaren begi-ondoa.

Eta bizirik geratu diranak antxe diraute gudaketan. Lari dira oraintxe Guadalajara-ingurukoak. Arerioa estutuța dago. Cuenca ta Guadalajara aldetik Madrid'erako bidea itxi eta Somosieřa'tik joten ekitea zuten asmo, baiña, okeř jo diote kukuak.

Erkaldařak menderatuta dute oraingoan arerioa. Lu-ota daude italiařak, ainbat lagun galdu ta asmoak-asmo baiño izan ez diranean, lui-jota.

Bitartean, paxistařen egazkiñak bake -baketsu dauden eřiak suagatzeari lotu dira. Besterik ezin dutenean, zitalkeririk ezin gorde nonbait.

Amaikatxu buruauste izango du oraingo ontan Mussolini gajoak!

Negus asaře

Idazki-agiri bat bialdu du Negus'ak Late:-Batza'ko Idazkaritzara. Addi-Abeba-inguruetan asaldariak basatikeriak egin dituztela-ta, asaře da.

TEXAS'EN

Mila ta bosteun zauritu ta ildako

New York.—Texas-dik diñuenez ezbeař andi bat igaro da. Ori dala ta mila ta bosteun zauritu ta ildako egon dira.

卐 卐 卐

New York.—Texas'go bařı batzuk ezbiař ori bayetsi dabe.

Petroleozko putsu batek leř egin dau eta langile guztiak azpian artu ditu.

Ildako eta zaurituen ařtean mila ta bosteun baño geyago dagoz.

Euzko guda oñetan

GIPUZKOA'KO GUDA-OŘETAN

Gure artileriak Akondia eta Clavelin suagatu ditu, arerioak egiten iñarđuzan gogortze lanak galerazoteko. Karakate'n arerioak egin nai eban batza bat be suagatu ta baja batzuk egin ebazan.

Elgeta aldean izkilazkar eta pusilen su -ots ariña. Elořio'tik gure artileriak, auřeko egunetan lez, Ařasate'ko lantegiak suagatuten jařaitu eban.

Arerioen egazkiñak ibili ziran alde onetan ikusketak egiten.

ARABA'KO GUDA-OŘETAN

Otxandiano - Aramayona aldean artileri joaldiak alde bietatik. Urbina'ko eřia suagatu zan arerioa gogortze lanetan ikusi zalako.

Mekoleta'n izkilazkar eta pusil su-ots bizia eta Ubidea'n artileri bukukaldiak.

BURGOS'KO GUDA-OŘETAN

Gure ikuskariak Orduña aldean areriọen batza bat oartu eben eta artileriak suagatu ondoren Izařa alderantz iges egin eben.

EGUNA JEL

Lgo. urtia | 68'gn. zenbakija | Idazkolea ta banakolea: Correo, 17'gn. | Bilbao'n 1937'gn. epaila 20'gna. larunbata | 15 euneu

Ama ilgo zara motzen azpian, ilgo zara zeu betiko?
¡Itxaron Ama jarion biot, neure odola lenago!
ARANA-GOIRI

ARGAZKI - INGOSKIA







Gaur egungo bitzabal bariak. Laster Batubetan egin daroez bitzabal oneik. Agiri danez, ederetaikuak izan biar dabe.

BAKIAREN ALDEZ OTOI - EGITEN



Bilbao'n Artxanda mendijan dogu Lourdes'ko Ama'ren irudi edet au. Amaikatxok egiten dautso ikertaldija gudea asi zanetik ona.



Eibar-onduan, Ego-etakatxubaren ertzean dagon Amaña zubija doga auxe. Año-año igeri dabiltz ama oneik, be- Geure etaldu xuben ederlasuna ezlogu ezautzen b'ai dan legez.

AZPIKERI GUSTIEN JAUREGIJA



Auxe doxube azipekeri gustijon iturburuaren bizi-toktija: Lehati Batza Erderan Sociedad de Naciones.